



## Amaiera hasiera da

Euskaraldiaren balorazioa egin dute ibarreko taldeek / 2-3



**Ziordiko Dona Maria kaleko goiko partean lanak egiten ari dira euri-urak egoki jasotzeko / 13**

**Irurtzungo Udalaren 2019ko aurrekontua %10,8 hazi da, 2.150.018 eurotara iritsi da / 5**

**Altsasuko Udalak milioi erdi euro bideratuko ditu Zumalakarregi plaza konpontzera / 11**

**Sakanako kirolari onenen sariak banatuko dituzte gaur lhabarko herriaren etxean / 17**

**Javi Eseverrik eta Peio Alzuetak Nafarroako Gobernuaren aitortza jaso zuten / 18**

**Euskarazko dokumentuen inguruko erakusketa izanen da abenduaren 23ra arte, lortian / 22**

**Baloreak musika taldearen diskoa aurkeztu du Deep Soda ekoiztetxeak Durango azokan / 22**



**Etxarri Aranazko Udalak herriko kale gehienetan bonbilak LED argiengatik ordezkatzeko ditu / 7**



Ekimen ugari izan dira 11 egun hauetan zehar Sakanako herrietan.

# Euskara gurean gelditu al da?

Pasa da Euskaraldia, euskararen erabilera handitzeko 11 egunez 2.631 sakandarrek egindako ariketa pertsonala, aldi berean kolektiboa ere bazena. Ariketaren ondoren Euskaraldiko taldeengana jo dugu, euskara gure artean gelditu ote den jakiteko

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Abenduaren 3aren ondoren garesti dago bazterrotan Ahobizi edo Belarriprest txapa bat ikustea. Hala ere, 11 egunetako ariketan egunez-egun sakandarrek euskararen inguruko hainbat bizipen eta esperientzia izan dituzte. Lagunekin, senideekin, lankideekin, sare-sozialetan eta herriko jendearekin partekatu dituzte esperientzia horiek, hitzez, idatziz, konplizitate keinu edo irriarekin besteetan. Poz txikiak. Horiek euskaraz hizketatzeko edo elkarrizketa elebi-

dunetan aritzeko norberak egitea erabaki duen aldaketa batean aurrera egiten lagundu dute.

Antolakuntzak berriro ere euskararen erabileraren inguruan hausnartzen jarri ditu bigarren galdetegia bidalita. Martxoan iritsiko da hirugarrena eta azkena. Hizkuntzaren inguruko hausnarketa, hala ere, Euskaraldian parte hartu dute netatik aparte ere iritsi da. Eta antolatzaileek Euskaraldiaren eragin hori aitortu dute: “inork gutxik espero zuen onarpena eta jarraipena izan du”. Horre-

gatik, esan dute, “hizkuntzaren normalizazioan bide erakusle izan daiteke. Epe ertain edo luzeago batean askoz sakonagoa eta zabalagoa den aldaketa bat bultzatzeko lehen urratsa”. Bukatu da Euskaraldia. Baina hurrengo urteetan bueltatuko da, maiztasuna zehaztuta ez badago ere. Beraz, bukaera hasiera da.

## Euskaraldiak herrian ekarpenik egitea espero zenuten?

Irurtzungo Blanca Ilundainek azaldu digunez, Euskaraldiak ekarpenik egitea espero zuten.

“Euskaldun asko gara, baina gehiago dira erdaldunak, eta, beraz, hobetzeko tartea bagenuen eta badugu. Guk aurreikusitako baino jende gehiagok eman du izena, eta alde horretatik pozik gaude”. Izaskun Bengoetxea irintarrak esan digunez, “zalan-tzan jarri genuen Euskaraldiak herrian ekarpenik egiten zuenik”. Ioana Ijurko uhartearrak esan digunez, “nahiko egoera kaxkarrak dugu herrian, batez ere gazteek. Eta asko euskaldunak izanda ere ez dute parte hartu”.

Arruazuko taldean “Euskaraldiak hizkuntza ohiturak aldatzea espero genuen eta zertxobait lortu dela ikusi dugu”. Hala esan digu Ainhoa Reparaz arbazuarrrak. Ainara Lopetegi lakuntzarrrak esan digunez, “ohiturak aldatzea” espero zuten. Gazti-gatu digunez, “Lakuntzan euskararen ezagutza handia dago baina erabilera ez”.

Lizarragako Txane Senarrek esan digunez, “herria ia euskalduna izanik, erabilera bultzatzea (gazteen artean batez ere) dugu helburu. Egun horietan jendea oso motibatua egon da, baina ez dakit zein puntutaraino jendeak mezua barneratu duen”. Etxarri Aranazko Idoia Agirrek esan digunez, Euskaraldiak egin zezakeen ekarpenarekin baiko-kuarrak esan digunez, Euskaraldiak herrian “eragin mugatua izatea espero genuen. Agian kasu batzuetan kualitatiboki eragin nabarmena ere espero genuen”.

Aitor Zubiria urdiaindarrek esan digunez, “Euskaraldia egitea oso ideia ona izan da”. Eta gogoratu dute Iñaki Eizmendik zuzenduta, Urdiainen antzeko kanpaina bat egin zutela orain dela 3 urte eta erdi. “Eskuaz Euslia txapa eta guzti eraman zuten hainbat herritarrek”. Altsasutik Mari Paz Barandiaranek esan digunez, “dinamika honek herrian eragin onuragarria izanen lukeela sinesten genuen. Euskararen ezagutza handia da, gero eta gehiago erabiltzen bada ere, ezagutzaren eta erabileraren

aldeko alde oso handia da. Eta hori murrizteko Euskaraldia aproposa zela uste genuen”.

## Zer eragin izan du herrian?

Irurtzundarrak esan digunez, “jendeak gogotsu hartu du ekimena, izen-emateak hori adierazten du, behintzat. Txapen banaketarako antolatu genuen festa oso arrakastatsua izan zen, eguraldia oso txarra izan arren. Ondoren, konpromisoa zenbateraino bete den ezin dugu jakin, baina, behintzat, leku publikoetan, dendetan, eskolan... jendeak oso ongi erantzun du, eta euskara kalean presenteago izan dela iruditzen zaigu”.

Irintarraren esanetan “euskaldunak gehiago definitu” ditu Euskaraldiak. Uhartetik: “hastierako egunetan nabaria zen, ilusioa zegoen, inguruan euskaraz entzuten zen. Tentsioa jaitsi ahala, erdarara jotzeko joera hortxe. Hala ere, nik neuk sorpresak hartu ditut eta pare bat pertsonekin euskaraz hitz egiten jarraituko dut”.

Lakuntzan euskarazko hainbat ekintza antolatu zituzten “eta horien beharra ikusi dugu”. Euskaraldiak lakuntzarrei “barrua mugitu diela uste dugu. Eta pentsarazi euskaraz bizi gaitzkeela, hori ikustarazi!” Merkataritzak guztiak bat egin duela gaineratu du eta parte hartu ezin zuten establezimenduei hiztegitxoak banatu zizkieten. Lopetegik esan duenez, “Ahobiziak aurreikusitakoak baino gehiago izan dira, Belarri prest berriz gutxiago”. Gazteengana eta helduengana ez direla iritsi sumatzen dute.

Arbizuarrak esan digunez, “Euskaraldian parte hartu duen herritar kopuruarekin pozik gaude”. Pozteko beste arrazoi bat: “positiboa izan da Belarriprestak identifikatu eta haiekin euskaraz aritzea, konplexurik gabe. Beraiek ere motibaturik ibili dira”. Etxarriarrari “ilusioa” egiten dio “euskaraz aritzen ez diren horiek, euskaraz hasten direla ikustea. Belarriprestak animatzen direla ikustea”.



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com





Etxe pasiboetarako egokia  
5 9000



Isolamendu nukleo indartsua



Beirak lehorrean jarrita



Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

## Euskaraldiko parte-hartzaileak

Herria	Ahobizi	Belarriprest	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez binarioa	Guztira	Populazioaren %
Irurtzun+Arakil	237	85	191	131	0	322	10,29
Irañeta	17	4	13	8	0	21	12,07
Uharte Arakil	83	21	63	41	0	104	12,56
Arruazu	39	11	30	20	0	50	49,5
Lakuntza	219	66	172	111	2	285	22,58
Arbizu	226	23	149	100	0	249	22,25
Lizarraga	43	5	31	17	0	48	26,52
Etxarri A.	383	45	258	168	2	428	17,37
Bakaiku	60	21	40	39	2	81	23,48
Iturmendi	22	6	17	11	0	28	7,04
Urdiain	112	18	73	55	2	130	19,37
Altsasu	514	182	461	229	6	696	9,38
Olatzagutia	111	40	98	53	0	151	9,95
Ziordia	27	11	27	11	0	38	10,64
<b>Guztira</b>	<b>2093</b>	<b>538</b>	<b>1583</b>	<b>994</b>	<b>14</b>	<b>2631</b>	<b>13,18</b>
<b>Guztira %</b>	<b>79,55</b>	<b>20,45</b>	<b>60,17</b>	<b>37,78</b>	<b>0,53</b>	<b>100</b>	

Bakaikun “gaia landu da eta ez da gutxi, jendeak hausnarketa egin du, autokritika asko entzun da. Euskaldun gehiago, belarriprest gehiago ezagutu ditugu, batez ere Euskaraldiko lehen egunetan giroa asko euskaldundu dela esan daiteke. Gero “normaltasunerantz” itzuli da. Parte hartzen ez zuen jendeak ere jarrera aldatuta izan du”. Baina izen-ematea altua izan dela baloratu dute. Urdiandik esan digutenez, “auto-hausnarketa egiteko oso baliagarria izan da ariketa”.

Altsasuarraren iritziz: “ariketak euskarari zentralitatea eman dio. Euskara gehiago egin dugu. Hainbat konpromiso pertsonalen berri izan dugu. Euskara bera hizketagaia izan da parte hartzen ez zuten artean ere. Berandu bazen ere izena eman nahi zuenik ere izan da. Ez omen ziren enteratu. Eta, jakina, posturoa. Txapa paparrean baina rola bete ez”. Hala ere, Altsasun “txapak eramatea euskaraz hitz egiteko ate asko ireki dituela uste dugu. Baita telefonoan Ahobizi eta Belarriprest irudiak izateak”.

Olatziarrarendako baliagarria izan da: “euskara nortzuk dakitenen ideia egin dugu, gure artean ezagutzera eman gara txapa gainean eramanda eta ikusita”. Horrek aurreneko hitza euskaraz egitea erraztu duela aitortu digu. “Orokorrean hain barneratuta dagoen gaztelez egitearen ohitura aldatzea zaila

egin da, baina erronkan parte hartu duten askok eta askok saiatu egin dira eta zenbait koadrilla eta taldeetan euskaraz egiteko ohitura aldatzen hasi dira”.

### Aurrera begira zer?

Irurtzundarrek aitortu dutenez, “nekatu xamar bukatu dugu, baina uste dugu garrantzitsua dela honek jarraipena izatea, eta beraz, hurrengo urtean ere gogotsu arituko gara”. Irañetatik galdera-ikurrekin erantzun diote galderari. Uhartearrek argi dute: “euskara herrian sustatzeko beste dinamika batzuk aurrera eramane behar ditugu”.

Arruazun esperantza: “11 egun horietan lortutakoa ez galtzea behintzat”. Lakuntzatik: “12. eguna eta hurrengoak garrantzitsuak dira eta horretan lan egin behar dugu. Orain Korrika dator eta honi ekingo diogu. Ondo legoke herrian euskara taldea martxan jartzea...” Arbizun argi dute: “Euskaraldiarekin ez da euskararen erabilera bukatzen. Beraz, Euskaraldian izan genuen jarrera eta motibazioa egunerokora pasa behar da”. Belarriprest arbizuarrak Mintzakide programan parte hartzeri animatu dituzte.

Lizarragan “aurrera begira euskararen erabileraren eta herriko euskararen erabileraren inguruko hausnarketa eginen dugu. Argi dugu 12. egunetik aurrera datorrela garrantzitsue-

na, baina halako kanpainak akuilu moduan ere garrantzitsutzat jotzen ditugu. Aurrera begira ere bertan egoteko asmoa dugu”. Etxarri Aranatzek “armairutik atera diren horiekin” euskaraz hizketatzen segitu eta horretan aritzera animatu nahi dituzte. “Eta Ahobizi garenon artean ere ez ahaztu euskaraz hitz egin behar dugula”.

Bakaikun gogorarazi digute euskaraz 365 egun behar dutela. “Arnasguneak eta euskarazko jarduerak behar dira. Korrika

bezalako ekimenak ere aprobeztatu behar dituzte, ea Euskaraldiak ere edizio gehiago dituen”. Urdiaindik hurrengo erronka nagusiari erreparatu diote: Korrika; gero, gerokoak”.

Barandiaranek gogorarazi digu altsasuarrak gaur bertan balorazioa egitera gonbidatu dituztela, 19:00etan, Gure Etxea erakinean. “Soziolingusitika Klusterrak parte-hartzaile guztiei hiru galdetegi bidaliko dizkigu. Baina, horretaz aparte Euskal Herriko 30 herri aukeratu di-

tuzte bestelako balorazioa egiteko. Eta Altsasu da aukeratu-tako herrietako bat. Horregatik, Euskaraldian parte hartu duten altsasuarrak talde balorazio horretan parte hartzeri animatzen ditugu”. Hori eginda... “gero, gerokoak” esan digute. Olatzagutian “Euskaraldiak utzi duen hazia mantentzea da gure asmoa. Euskaraldiarekin sortu den giroa eta ohitura galdutako dadin, aurrerago hainbat ekintza eta egitasmo antolatzea pentsatu dugu”. +[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## Parte-hartzaileak adin tarteko

Herria	24 urte arte	25-40	40-65	66 urtetik gora	Guztira
Irurtzun+Arakil	35	109	153	25	322
Irañeta	0	13	8	0	21
Uharte A.*	0	0	0	0	104
Arruazu	4	17	24	5	50
Lakuntza	31	96	131	27	285
Arbizu	40	79	120	10	249
Lizarraga	4	16	25	3	48
Etxarri A.	38	162	197	31	428
Bakaiku	11	28	34	8	81
Iturmendi	12	11	5	0	28
Urdiain	34	38	52	6	130
Altsasu	149	229	286	32	696
Olatzagutia	25	66	55	5	151
Ziordia	6	23	9	0	38
<b>Guztira:</b>	<b>389</b>	<b>887</b>	<b>1099</b>	<b>152</b>	<b>2631</b>
<b>Guztira %</b>	<b>14,79</b>	<b>33,71</b>	<b>41,77</b>	<b>5,78</b>	<b>100,00</b>

\* DATURIK EZ DUGU, IZENA EMATERAKOAN UHARTE IRUÑA ETA UHARTE ARAKIL NAHASTU DITUZTELAKO.

## Euskaraldiak utzitako datuak

Sakana guztiko herritarrek parte hartu dute Euskaraldian. Baita izena emanda ez zeudenak ere. Esaterako, ergoendar askok Arbizun eman dute izena, iturmendiarrak Bakaikun edo ziordiarrak Olatzagutian.

2.615 sakandarrek bat egin dute euskara gehiago erabiltzeko ariketarekin. Horrek esan nahi du ariketa martxan zela 426 sakandarrek bat egin dutela Euskaraldiarekin. Sakana guztiko populazioaren % 13 pasa izan da euskara gehiago erabiltzeko ahalegina egin duena. Batz besteko horretatik gora 7 herri egon dira. Populazioaren ia erdia parte hartuz, Arruazu nabarmendu da (% 49,5). Talde berean daude

Lakuntza, Arbizu, Lizarraga, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Urdiain. Sakana % 13ko batz bestekotik behera egon dira: Irurtzun eta Arakil, Irañeta, Uharte Arakil, Altsasu, Olatzagutia, Iturmendi eta Ziordia. Azken bi herri horietan ez zegoen talderik.

Ahobizi rola 2.093 sakandarrek hartu dute, parte hartzaile guztien % 79,55. Bestela esanda, bostetik lau. Belarriprest, berriz, 538 sakandar izan dira, aritutakoen % 20,45.

Generoari erreparatuta, emakumezkoak dira nagusi Euskaraldian. 1.583 emakumezko sakandar aritu dira ariketan, % 60,17. 994 gizonezko izan dira

bat egin dutenak ekimenarekin, % 37,78. Ez bata ez bestea gisa definitzen direnak, ez binarioak, 14 izan dira, % 0,53.

Datuek garbi uzten dutena da Euskaraldiak ez dituela ez gazteak ez adinekoak erakarri. 24 urtez azpiko parte-hartzaileak 389 izan dira, % 14,79. 66 urtetik gorakoak, berriz, 152 izan dira, % 5,78. Bi mutur horien artean dauden adin tartekoak izan dira Sakana Euskaraldiko muskulua. 25 eta 40 urte arteko 887 parte-hartzaile izan dira, % 33,71. Eta kopuru aldetik Euskaraldian parte-hartzaile kopuru handiena duena 40 eta 65 urte artekoena da: 1.099 ahobizi edo belarriprest izan dira adin tarte horretan. Bestela esanda, aritutakoen % 41,77.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Eguraldi politikoaren tenporak

Laster sartuko gara neguan eta, oro har, giro petralak lagundurik biziko ditugu Eguberriak. Azken egun hauetan ekaitz gogorrek astindu gaituzte iparraldetik. Milaka Jaka Horidun atera dira errepideak moztera, eta ederki astindu dute Frantziako lurraldetasun osoa. Suteak ere Paris aldean, eta ez gutxi. Izan ere, batera jo omen dute ezkerreko eta eskuineko haizeek. Denboraleak luze joko duela dirudi metatutako indarrak ez baitira gutxi. Hor elkartu dira hainbat eskakizun, eta Macronek ez die oraindik egoki erantzun. Lehenengoa, etxegaberik ez. Bigarrena, zerga progresiboagoak, gehiago irabazten dutenak estutuz. Hirugarrena, gutxieneko soldata mila hirurehun eurokoa. Laugarrena, komertzio txikia laguntzea herrietan eta hiriguneetan. Bosgarrena, handiek asko ordain dezatela (Mc Donalds, Google, Amazon, Carrefour...) eta txikiek gutxi (autonomoak, pymeak...). Hamahirugarrena, enpresen deslokalizazioak debekatzea, bertako industria eta lanpostuak zainduz. Eta horrela berrogeita bi eskakizun.

Hegoaldetik ere, hego-haizeak bazterrak nahasi ditu, Andaluziako paisaia erabat aldatuta, eta Vox alderdia indartuta.

## GAIZTOTZEN ARI DA GIROA ETA BORTIZKERIAREN EKAITZA AREAGOTZEKO ARRISKUA EZ DA TXIKIA

Ustez, sozialisten aro luze usteletik aterako dituen argitasun berria nagusitu omen da, neguaren atarian udaberriaren sarrera bailitzan. Tarte bat itxaron beharko da, ikusteko, zirimola horren ondorioak onurarik ala kalterik ekarriko duen.

Ekialdetik Kataluniako Tramontanak gogor, Torra presidentearen presioak bereak, eta Madrileko haize demokraziagabeak ez du barerik. Gaiztotzen ari da giroa eta bortizkeriaren ekaitza areagotzeko arriskua ez da txikia. Herriaren demokraziak eta estatuaren indarkeriak talka eginez, eta eragindako tximistak eta ortotsak ikusten dira beldurrez.

Gurean, berriz, giro apalagoa, baina lainoek altxatu gabe irauten dute, presoen senideen eta indarkeria matxistaren aurkakoen aldarrikapenek bezalaxe. Egoera horretan, hauteskunde ufadaren indarra ari da nagusitzen poliki-poliki. Gauzak horrela, eta Eguberrietan ere, Euskaraldiari etsi!

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Giza Eskubideen Aitorpenaren 70. urteurrena: ezer ospatzerik

#### ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

"Kontuan izanik munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdinean eta ukazinetan oinarritzen direla";

"Kontuan izanik giza eskubideak ez ezagutzearen eta gutxiestearen ondorioz, giza kontzientziari irain egiten dioten basakeriak gertatu izan direla; eta gizon-emakumeek, beldur eta gabezia orotik aske, hitz egiteko askatasuna eta sinesmen-askatasuna izango dituzten munduaren etorrera aldarrikatu dela";

"Kontuan izanik ezinbestekoa dela giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea; baita ere, herrialdeen artean

harreman lagunkoiak bultzatzea; kontuan izanik Nazio Batuetako kide diren herriek gizakiaren oinarritzko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean duten fedea tinko azaldu dutela Agirian; eta, askatasunaren ikuspegi zabalago baten barruan, gizarte aurrerakuntza sustatzeko eta bizitza-maila jasotzeko erabakita daudela adierazi dutela; kontuan izanik Estatu Kideek, Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean, gizakiaren oinarritzko eskubide eta askatasunen begirune orokorra eta eraginkorra ziurtatzeko hitza eman dutela";

"Kontuan izanik emandako hitz hori osotasunean

betetzeko garrantzi handikoa dela eskubide eta askatasun horiek berdinean ulertzea;"

Eta kontutan izanik egun, hainbat eskubide urratzen dela: libreki mugitzea, bizitzea, segurtasuna, tratu berdina eta babeserako eskubidea...

#### Ospatzekorik?

70 urte bete dira 1948-12-10ean gizaki oro berdinean egiten gaituen Giza Eskubideen Aitorpenaren gutuna sinatu zenetik. Borrokatzeko asko daukagu, gutxiengo duintasun batean bizi nahi badugu; bidezkoagoa, errespetuzkoagoa, berdina eta baztertzaila ez den gerrarik gabeko mundu berri bat eraikitzeko.

Hau ere eskubide dugulako. Eta orduan bai, orduan ospatuko dugu.

## OBJEKTIBOTIK

### Haurren ohiko jolas(kk)kidea

Haurrek ibili aurretik ikasten dute kaka sahiesten. Gure herrietako jolas parkeetan haurrak ohituak daude kulunken artean txakurren kaka aurkitzera. Txakurrak solte ibiltzen dira parkeetako belardietan, eta ondorioz, jabeek ez dituzte beraiek kakak jasotzen. Baina hau al da hurrei eman nahi diegun erredua?



# guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administrazioa:**  
Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Zuzentzailea:**  
Maria Luisa Zelaia

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
Irene Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Maria Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**



Gizarte arloan 20 edo 22 kontratazio egitea jasotzen da aurrekontuetan. ARTXIBOA

## Udalaren aurrekontuak % 10,8 igoko dira

Lanak egiteko 768.166 euro bideratuko ditu Irurtzango Udalak. Gizarte arloko inbertsioa 295.106 eurokoa da. Azken horren barruan 20 edo 22 kontratazio egitea aurreikusten da

### IRURTZUN

Irurtzango Udalak 2.150.018 euroko aurrekontua onartu du heldu den urterako, aurten baino 201.807 euro gehiago. EH Bilduren aldeko sei botorekin eta 2 zinegotzi independenteren (beste biak lan kontuengatik ezin izan zuten egon) eta UPN-koaren abstentzioarekin onartu ziren aurrekontuak asteartean. Aitor Larraza Carrera alkateak esandakoaren arabera bi taldeek hilabete izan dute proposamenak egiteko baina ez dute bat bera egin.

Aurrekontuei erreparatuta, Larrazak azaldu digunez, “udalak duen ekonomia egoera onak bermatzen digu 2019an hainbat

lan egitea”. Nafarroako Gobernuaren Tokiko Azpiegitura Planean (TAP) jasota daude eta, beraz, foru administrazioaren diru-laguntzarekin egingo diren lanak hiru dira. Lehena, argiteria publikoko egungo bonbilen % 90 LED teknologiatik ordezkatzeko da. “Horrekin karbono emisioak, udalaren argindar kontsumoa eta faktura murriztu nahi ditugu”, azaldu digu Larrazak. Aldaketa hori egiteko 265.505 euro bideratu dituzte. TAPean jasotako beste lan bat kultur etxeko teilatua da eta lan hori 41.140 euroekin egingen da. Bestetik, musika eskolako leihoak aldatzera 34.937 euro bideratuko dira.

### Lan gehiago

Inasako bulego eraikinaren beheko solairuaren egokitzapena da. Udalak lan horretarako 146.584 euro bideratuko ditu. Sakanako Eraldaketa Digitalerako Estrategiaren barruan dago eraikin hori. Eraldaketa digitalean sortzen den teknologia garatu, frogatu eta sinergiak sortzeko gunea izanen da. Enpresek erabiltzeko esparru bat. Eta udalaren eta gobernuaren artean egokituko da, bakoitzak zati bat. Alkateak jakinarazi digunez, “udalaren zatiko lanak gaur hasi dira. Eta gobernuak bereak aurki emanen ditu. Lanak apirilera despedituta egonen dira”. Lanak despeditu ondoren espa-

zio hori jantzi egin beharko da eta horretarako udalak foru administrazioaren laguntza izanen du. Guztira, 210.000 euro izanen dira.

Bestetik, udaletxe ondoan dagoen haurrentako jolas parkea egokituko du udalak heldu den urtean eta horretarako 35.000 euro bideratuko ditu. Kopuru hori bera zertan inbertitu erabakiko dute irurtzundarrek parte-hartze aurrekontuen 9. edizioan.

Bestetik, Akaborro industrialdeko kaleetan hainbat konponketa lan egin dituzte eta haien zorua asfalto geruza berri batekin konponduko dute. Herrian bertan bi kaletan ere lanak egitekoak dira. Alde batetik, Ardubil kalean lurra jaso eta zorua hobetuko dutela jakinarazi digu Aitor Larraza Carrera alkateak. Bestetik, Bi Aizpe kalean ur sarea eta zorua berri-tzearekin batera arkitektura oztipoak kenduko dituzte.

### Kontratazioak

Irurtzango kiroldegia kudeaketa irailera arte pertsona baten ardurapean zegoen. Udalak kirol azpiegituraren kudeaketa bere gain hartu du eta horrek langileriari bideratutako diru sailean hazkundera ekarri du. Izan ere, zerbitzu anitzetarako eta garbiketarako langile bana hartu baititu. Bestalde, aurten bezala udalak 2019an 20 edo 22 kontratazio egin asmo ditu. Aurten kontratazioak honela egin dira: Nafar Lansareren bidez 6 pertsona (4 zerbitzu anitzetako zerbitzurako eta 2 garbiketarako), Gizarte Zerbitzuen bidez 5, gaztetxokorako 2 eta igerilekue-tan lan egiteko 4. Horiei Iturras-karri proiektuko onuradunak gehitu beharko litzaizkieke.



Asteartean Etxarrin bilduko dira.

## SPEko herritarren parte hartze jardunaldiak

### SAKANA

2014-2020 Sakanako Plan Estrategikoak (SPE) egindako bidea aztertzeke geldialdia egin eta aurrera begirako erronketara egokitzea. Horixe da egoki jo dutena Sakanako Sozioekonomia Behatokian, ibarreko makina bat eragile biltzen dituen. SPE-ren berrikuspen parte-hartzailea egin nahi da. Horregatik, makina bat eragileekin elkarriketak izanen dituzte Sakanako Garapen Agentziakoek. Aldi berean, SPE “denon gauza denez, ideia eta aukera ugari izan daitezke Sakanan”.

Sakandarrek horien berri zuzenean emateko jardunaldi irekiak antolatuko dituzte. Atzo Irurtzunen izan zen. Hurrena, Etxarriko kultur etxean izanen da, asteartean. Atzena Altsasuko Iortia kultur gunean izanen da asteazkenean. Bietan, 18:00etan.



107.3 FM  
**beleixe**  
guaixe.eus-en ON LINE  
Denboraldi berria

## Saioa 10:00 – 12:00

10:00 Egun on, prentsa eta eguraldia

10:15 Eguneko agenda

10:20 Albistegia

10:45 Eguneko elkarriketak

11:15 Sarea: Esan Erran eta Aralar irratiko esatariekin

11:55 Saioren bukaera



Joan den urteko Altsasuko Kafe Konpondu. ARTXIBOA

## Kafe Konpondu, Altsasutik Sakanara zabalduko da

Hondatuta dauden objektuak nola konpondu irakasten den topaketak dira Mank-ek eskaintzen duena

### SAKANA

Sakanako Mankomunitatearen Hondakin bilketako Zerbitzuaren herritarrek etxean hautsiak dituen gauzak konpontzeko aukera izanen dute, objektuen bizitza erabilgarria luzatuz eta hondakinik sortu gabe. Eta gure poltsikoari aparteko gastua eragin gabe. Hortxe 3 arrazoi hondatutako zerbitzu konpontzeko.

Erosi, erabili eta bota. Gurrpil zoro horretan sartuak gaude. Erabateko kontsumismoan. Kontua da botatzeko ohitura horrek hondakin ugari sortzen dituela eta haiek kudeatu behar direla. Askotan erabilitako hori hautsita edo urratuta dagoelako botatzen dugu. Baina konponketa txiki batekin horiek erabiltzen segitzeko modua gurek. Batzuk besteak baino trebeagoak dira konponketa horietan eta hori ere izaten da gauzak botatzeko arrazoia.

Orain arte. Izan ere, Batuta elkarteak, Sakanako birziklatze laborategiak, konponketa horiek egiteko bere jakintza eskaini du. Horrek objektuen konponketa birziklatzeko beste modu batean bihurtu du. Eta horixe da, hain zuzen, Sakanako Mankomunitateko Hondakin bilketako Zerbitzuak nahi ez duena, zabor gehiago sortzea. Horregatik, Sakanako Mankomunitateko Mank-en zerbitzu horrek, Sakanako birziklatze laborategiarekin batera, etxeko objektuak konpontzeko edota berritzeko bost saio antolatu ditu Sakana-ko beste hainbeste herritan abendurako.

Mank-etik jakinarazi dutenez, Kafe Konpondu egitasmoak Etxarri Aranatz, Arbizu, Arakil, Olatzagutia eta Bakaiku bisitatuko ditu ilbeltzean. Konponketa trebeak direnak ere parte hartu dezakete saioetan.

### Kafe konpondu Sakanan

Herria	Tokia	Eguna	Ordutegia
Iturmendi	Udaletxeko auzogelan	Abenduak 18, asteartea	18:00-20:00
Irurtzun	Udaletxeko batzargelan	Abenduak 19, asteazkena	18:00-20:00
Lakuntza	Kultur etxean	Abenduak 20, osteguna	18:00-20:00
Uharte Arakil	Udaletxean (Ibai kaletik)	Abenduak 27, osteguna	18:00-20:00
Urdiain	Herriaren etxean	Abenduak 28, ostirala	18:00-20:00

# Egin beharrekoetan lehentasunak zehaztera

Larunbatean, 11:00etan, udaletxean aurreko topaketan zehaztutako beharren artean lehentasunak markatzera gonbidatuta daude bakaikuarrak. Aurretik diagnosis egin zuten eta ondoren lehentasunak identifikatu zituzten

### BAKAIKU

Bakaiku 2029an herritarrek nola irudikatzen duten zehazteko parte-hartze prozesua antolatu du udalak eta hura bihar despidituko da, bakaikuar guztiei zabalik izanen den hirugarren batzarrarekin. Bigarrenean herria 10 urte barru nola nahi luketen irudikatu zuten eta, horretarako, lehentasunak markatu zituzten. Besteak beste honako gaiak jo zituzten lehentasunezko: etxebizitza, arkitektura-oztopoak kentzea, zerbitzuak mantendu eta gehitu, aisialdirako eskaintza handitu, auzolana, mugikortasuna, eskolen berrerabilpena, azpiegitura berrien sorrera, euskara eta kultura bultzatu... Atzeneko topaketa irekia bihar izanen da. Hara joaten diren bakaikuarren egiteko izanen da orain arte hitz egindako gaien artean lehentasunezkoak direnak zehaztea.

Egoitz Urriza alkateak esan digunez, "oso pozik gaude orain



Parte hartze prozesuaren bilera Bakaikun. SGA

arte bakaikuarrek eman duten erantzunarekin, eredugarria izan da. Prozesuaren azken txanpan ere berdin jarraitzea nahiko genuke". Horregatik, Bakaikuren etorkizunari begira segitzeko eta biharko topaketan

parte hartzeko gonbidapena egin du, "denon ikuspegia oso garrantzitsua da guretzat, eta ezinbestekoa, denon gustukoa den herria eraikitzeko". Gogorazi du haurtzaindegi zerbitzua izanen dela.

## Ibarreako isurketak eteteko diru-saila onartu dute

Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen emendakinen tramitazioan onartu zuten, asteazkenean

### ALTSASU

Nafarroako Parlamentuan herrialdeko heldu den urteko aurrekontu legea aztertzen hasi ziren parlamentariak astelehenen. Nafarroako Gobernuak aurkeztutako kontuei emendakinek banan-banan aztertzen ari dira. Eta asteazkenean onartu zutenetako bat da Altsasuko Ibarrea industrialdeko isuriak eteteko kolektore bat egitearena. Gobernuari eusten dion laukoak 300.000 euroko diru saila proposatu zuten eta aho batez onartu zen proposamena.

Gaur egun Ibarrea industrialdeko eta Geltoki edo Txunkai auzoko ur-beltzak zuzenean Altsasuko ibaira joaten dira. Isurketa horiek osasun eta ingurumen arazoak sortzen dituzte. Aspaldi jakina da inguru horretako hondakin-urak jaso eta araztegi eraman behar direla. Ur-beltzen kudeaketaz arduratzen den Nilisa enpresa publikoak, esaterako, 2010 urtean 475.359 euroko aurrekontua zuen proiektua egin zuen. Baina finantza arloak eragindako krisiagatik ez zen gauzatu.

## Udaberri elkartearen sutea izan zen larunbatean

Karrikestu kalean dagoen Udaberri elkartearen sutea izan zen larunbatean. Larrialdi zerbitzuek 19:15 aldera jaso zuten sutearen berri eta Altsasuko suhiltzaileak hura itzaltzera bidali zituzten. Bi kamioi eta autoa joan ziren. 20:00etarako lana despidituta zuten. Elektrizitateak eragindako sutea izan zen, sarreran dagoen elektrizitate koadroan. Haren azpian zeuden bi edukiontziri eta beheko solairu guztiari eragin zion. Kalte handirik ez, baina ke handia eragin zuen suteak. Ezbeharrak izan zen momentuan ez zegoen inor elkartean. Elkarte hori Etxarri Aranatz dauden sei elkartetako bat da.



Heldu den urtean Etxarriko kale gehienetan LED argiak jarriko dituzte. ARTXIBOA

# Aurrekontu berriak herri guztirako LED argiak

Etxarri Aranazko Udalak 2.198.328,48 euroko aurrekontua izanen du heldu den urtean, aurtun baino 49.431,52 euro gutxiago. Baina legegintzaldiko aurreneko aurrekontua baino 479.679,48 euro gehiago

## ETXARRI ARANATZ

Eneka Maiz Ulaiar alkateak Beleixe Irratian (FM 107,3 edo [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)) sekula baino lehenago, azaroaren 21an, onartzeagatik pozik dago alkatea. Maizek jakinarazi duenez, ohikoak ez diren bost inbertsio eginen ditu udalak heldu den urtean. Handiena, 194.314,1 euro, argiteria publikoko bonbilak LED teknologiatik ordezkatzeko izanen da. “Horretan hasiak ginen, baina herriko kale gehienak eginen ditugu orain”. Udalak horrela argindar kontsumoa eta pagatu beharreko faktura txikituko ditu. Asmo berarekin eskoletan LED argiak jartzeko 6.000 euroko diru-saila du udalak. Frontoi barruko argiak ere berrituko dituzte.

Maizek aurreratu duenez, Utubar industrialdeko urbanizazioa hobetzeko egiten ari diren lanak heldu den urtean segida izanen dute 2019an eta horietara 133.347,36 bideratu ditu udalak. Industrialdea nahiko zahar-

kitua zegoen. Lanekin zorua, argiteria eta bestelako azpiegiturako konpontzen ari dira.

Ur-hornidura sarea hobetzeko 90.802,41 euroko balioa duten lanak eginen ditu udalak. “By-passa eta erregulatuzaileak jarriko dituzte urarekin ditugun presio arazoak konpontzeko”. Euskalerriri frontoiko teiltatu txikia berritzeko lanak ere 2019an eginen dira, 40.327,77 euroko kostuarekin. Alkateak jakinarazi duenez, “frontoiko bi teiltatuek dute berritzeko beharra daukate. Handiari oraindik ez zaio garaia heldu, inbertsio handia delako”. Azkenik, udalarendako kamioi bat erosteko aukera ez du bazterzen alkateak, “duguna oso zaharra delako”. Horretarako, 15.000 euro aurreikusituzte.

Bestelako konponketa batzuk ere eginen dira 2019an. Maizek jakinarazi dutenez, kultur etxeko teiltatuko matxurak konponduko ditu udalak. Horrekin batera, igerilekuan hobekuntza

lanak eginen dira. Eta plazako argiteria eta haur-parkeak hobetzeko asmoa ere iragarri du alkateak.

## Gehiago

Etxarri Aranazko alkateak Sakanako irrati euskaldunean jakinarazi duenez, udala Administrazio Elektroniko sistemara pasatuko da, eta horretarako beharrezkoak diren inbertsio eta funtzionamendu aldaketak eginen dituzte heldu den urtean. Kulturara bideratutako aurrekontua handitu egin dela jakinarazi du Maizek. Baita adin nagusiko pertsonen estimulazio kognitiboa lantzeko tailerra eskainiko dela ere. Bestetik, Sakanako Mankomunitateak Berdintasun teknikaria kontratatuko duela eta horretarako udalak diru-sail bat aurreikusi duela gaztigatu du Maizek. Beleixe Irratian Maizek jakinarazi du udal kanpina Ospium izeneko gestoria batek kudeatuko duela. Hurrengo astean

eginen den udal bilkuran formalizatuko da esleipena. “Kudeatzaile berriak ilbeltzean hasiko dira turismo azpiegitura kudeatzen, gaur egungo kudeatzaileekin eta udalarekin koordinatuta; informazio trukaketa txukun bat egin dadin”.

## Finantza egoerak eta tasak

Legegintzaldian zehar udalaren aurrekontuak, inbertsioak, eta diru-sarrerak handituz joan direla eta krediturik ez dutela eskatu behar izan nabarmendu du alkateak Beleixe Irratian. “Inbertsioak handitu arren udalaren zorpetze maila jaitzi egin dugu”. Alkateak datuak eman ditu: “2014an 610.000 euroko zorra zuen udalak, 2019an 388.750 izanen da”. Maizek ziurtatu duenez, “zorpetze txikia da gure moduko udal batendako”. Udalaren diruzaintzako gerakina, 2017ko kontuak itxita, 679.169 eurokoa da.

Tasei dagokionez, alkateak azaldu du kontribuzio zerga % 0,24koa izanen dela heldu den urtean. “Joan den urtean % 0,25ekoa zen, baina lur eta erai-kien balorazio ponentzia berritu zela, eta baloreak asko igo zirenez, Udalak erabaki zuen aurtengo tipoa 0,23ra jaitea, herritarrengan inpaktua txikitzeko. Baina asmoa da progresiboki berriz ere 0,25era iristea, nahikotasun mailara iristeko. Bide horretan, heldu den urteko tipoa 0,24an jarri da”. Bestetik, udalak Utzubarren eta Beheko Basoan azientzarako bazkaleku bana du. Alkateak jakinarazi duenez, “erabilerarako ordenantza lantzen ari gara, eta han jasoko da, besteak beste, abeltzainek abeltzaintza unitate bakoitzeko ordaindu beharko duten tasa”.



Konpost metak hondakindegian.

## Argi berdea konpost plantaren proiektu

### ARBIZU

Sakanako hondakin organikoak tratatzeko konpostatze planta egin nahi du Sakanako Mankomunitateak Arbizuko hondakindegian. Herriko udalarekin adostasuna lortu zuen. Nafarroako Gobernuaren aldeko ebazpena jaso zuen proiektuak. Baina Iruñea eta Gasteiz Abiadura Handiko Trenaren (AHT) bidez lotzeko proposamenak adostutako azpiegiturari eragiten zion, AHTren eragin inguruan zeuden hirigintza lizentziak urte baterako bertan behera gelditzen zirelako.

AHTko lanak berehala eginen ez direlakoan eta konpost planta premiazkoa dela irizita, planta tren proiektuaren eragin eremutik ateratzea adostu zuten Mank-ek eta udalak. Gobernuak aldaketa horri oniritzia eman berri dio.

**aholkularitza**  
Juridiko  
laborala

Aitziber  
Andueza Larrazo  
Abokatsua / Gizarte Graduatua

[aitzabzarrazo.aholk@gmail.com](mailto:aitzabzarrazo.aholk@gmail.com)  
Arkuetabide 2 baxua  
ETXARRI ARANATZ

653 863 289  
848 412 926

**Levi's®**

avensio 1927



Biak Bat elkarteak Aita Barandiaran adinduen egoitzan egindako saio batean. ARTXIBOA

## Biak Bat-en mantenuaren aldeko diru-bilketa

Behar bereziak dituzten pertsonekin terapia egiten duten animalien mantenuan laguntzeko #GivinBiakBat proiektua martxan jarri du elkarteak, horrela elkartearen onura jende gehiagorengana iristeko

### ALTSASU

Biak Bat elkarteak bere lan taldean dituen animaliak mantentzeko diru bilketa egiten ari da. Horretarako, talde-finantzaketa edo crowdfunding kanpaina martxan jarri dute [www.migranodearena.org](http://www.migranodearena.org) plataformaren bidez. Helburua 5.000 euro eskuratzea ilbeltzaren 15erako. Ekarpenak egiten dituzten pertsonen elkartearen zortzi animalien ongizatean eta mantenuan lagunduko dute. Besteak beste, albaitariarenera bisitak, txertoak, elikadura eta bestelakoetarako ekarpena eginez.

Elkarteko psikologo eta animaliekin esku-hartzeetan aditua den Josune Azpiroz Imazek Belexe Irratian (FM 107,3 edo [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)) azaldu duenez, "jendeak emandako dohaintzekin elkartearen gastuak murrizten dira eta, horrela, jende gehiagorengana iristeko aukera dugu". Azpiroz elkartearen nahia zein den argitu du: "gure zerbitzua ez dadila soilik baliabideak

dituzten familiendako edo pertsonendako izan. Denen artean baliabideak jartzen baditugu pertsona gehiagorengana hel gaitzke. Askotan zailtasun handiak dituzten pertsonengana. Zerbitzua jasotzea behar duzu eta nahi duzu? Bada, denon artean ekonomikoki irisgarria izatea lortuko dugu". Sakanako familiei erraztasunak ematen dizkiete, "ahal dugun guztia prezioa murriztu, uste dugu agian hemen zerbitzu espezifikoa gutxi daudela eta ahal dugun guztia erraztu behar dela".

### Elkartez

Azpiroz Imazek gogorarazi duenez, euren irabazi asmorik gabeko elkarte da, Altsasun 2011n sortu zena. Haren helburua, behar bereziak dituzte pertsonen bizi kalitatea hobetzea animaliekin egindako terapien bidez. Animaliak lagundutako terapiak egiten edo hezkuntzan aritzen dira batez ere. Azpiroz Sakanako irrati euskaldunear

azaldu duenez, "animaliek ez dute epaitzen, pertsonari konfiantza ematen diote. Ez dute, guk bezala, etengabe eskaerarik egiten. Guk nabaritzen duguna da pertsonak terapia prozesu bat hasten duen momentuan ematen duten konfiantza eta motibazioa da. Ez dute terapia arrunt baten moduan ikusten, baina atzean psikologoak eta beste profesionalak gaude".

### Hurrekin eta adinduekin

Aita Barandiaran adinduen egoitzan azaroan egin dituzten saioak gogorarazi ditu Azpiroz: "haien bizitzetan monotonia handia dute, bakardadea sentitzen dute... Beti bere errutinan. Euren bizitzako azken fase ho-

**"DOHANTZEK GASTUA KENDU ETA JENDE GEHIAGORENGANA IRISTEKO AUKERA EMANEN DIGUTE"**

rretan sartzen diren pertsonak dira". Horrek, emozioen aldetik depresioa edo antsietatea eragin dezakeela gaztigatu du Azpirozek. "Guk egiten ditugun bisita horietan haien mundutik ateratzen direla ikusten dugu. Batzuetan gure arazoetan oso barruan sartzen gara eta txakurrekin joaten garenean, lehenengo gauza, irribarrea ateratzen zaie nahi gabe eta txakurrekin jolasteko edo elkarlanean gogoia sortzen zaie". Horrelako bidez arreta lantzen dute. "Haien arteko erlazioak handitzen dira. Zer txakur izan dituzten gogoratzen hasten dira, haiekin nolako istorioak zituzten gogoratzen dute eta, agian, ondokoari kontatu. Eta gu sartu aurretik, agian, bakoitza bere munduan zegoen". Azpiroz dioenez, "horrek sortzen duen estimulazio globala oso positiboa da adinduetan".

Hurrekin lan egiten dutenean gerta liteke terapia askotara joatea eta gogorra izatea. "Gure kasuan, jolasen bidez, txakurrak edo katuak motibazioa lantzen da". Esaterako, hitz egiteko arazoak dituztenak errazago izaten da. "Konfiantza ematen die eta naturaltasunez haiekin erlazionatzen dira eta helburuetan aurrera egiteko oinarria da hori". Biak bat elkarteak kideak azaldu du animalien bidez pertsona askorengana iritsi daitezkeela. "Depresioa, esaterako. Fokua aldatzen dute eta gauzak egiteko gogoia ematen digute animaliek: kalera ateratzea, zaintza lanak egiteko... Hori da gure lanaren oinarria: pertsonen eta animalien artean sortzen den erlazio horren bidez gure helburuak lortzen saiatzen gara".

Biak Bat elkarteak terapiak egiteko sei txakur eta bi katu ditu. Azpirozek esan duenez, "gure helburua litzateke beste espazio bat izatea eta animalia gehiagorekin lan egitea. Animalia bakoitzak bere izateko modua du eta horrek aukera gehiago ematen dizkigu". Elkartearen protokoloaren arabera txakurrak hezleekin bizi behar dute. "Ez ditugu txakurtegi batean eta terapiarako ateratzen, ez. Gurekin bizi dira, gure lankide eta bizikideak dira. Haien ongizaterako garrantzitsua da. Lan egiterakoan, profesionalaren eta txakurraren arteko elkarlanean, konfiantza gehiago suposatzen du".



Jesus Pablo Leon eta Darko. UTZITAKOA

### Darko artzain txakur alemana, bitan ederrena

Jesus Pablo Leonen artzain-txakur alemana da Darko eta 10 hilabete ditu. Animaliak, berriki, bi edertasun txapelketa irabazi ditu. 26. Nafarroako Nazioarteko Erakusketako eta 32. Nafarroako Txakurren Nazio Erakusketak jokatu zen Cabanillasen azaroaren 11n. Altsasuarren txakurra ile motzeko artzain-txakur alemanen har gazteen txapelketan irabazlea izan zen. Gauza bera gertatu zen abenduaren 2an Naldan. Orduan Errioxako txapelkun izendapena lortu zuen Darkok. Pablok azaldu digunez, "Darko haztegi on batekoa da eta pedigri ona du. Aiton txapelkunak izan ditu eta Alemaniatik heldu da". +[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

### Bakaikuko Kalendaiyandako argazki eske

Bakaiku bera protagonista den egutegi edo kalendaiyua argitaratu dute aurreko bost urtetan. Hilabete bakoitza herriko argazki batez lagunduta egon da orain arte. Eta hala segitu nahi dute Bakaikuko kalendaiyua egiten dutenek. Baina horretarako argazkiak behar dituzte eta bakaikuarrei deialdia egin diete: "egutegia guztion artean osatu nahi dugu eta horretarako zure argazkiak behar dugu: zure argazkiak behar ditugu". Argazkiak bakaiku.egutegia@gmail.com helbidera edo estankon, Koxkon edo udaletxean utzi daitezke. Gaur da azken eguna. Aukeraketa egin ondoren argazkiak bueltatuko dituzte.





Udaltzaingoaren autoa udaletxe parean aparkatuta. ARTXIBOA

## 2014ko udaltzain deialdian aurrera pausoa eman da

Nafarroako Gobernuak behin behineko onartuen zerrenda onartu du. 2020rako 7 agente izanen dira

### ALTSASU

Hainbat udalekin batera, Altsasuko Udalak, Nafarroako Gobernuaren bidez, udaltzainak kontratatzeke oposizio-deialdi bateratua egin zuten 2014an. Altsasuren kasuan hiru agente-oren postuak betetzeko deialdia zen. Administrazio prozeduran aurkeztutako helegiteak direla eta prozesua asko luzatu da. Nafarroako Aldizkari Ofizialak asteartean jakinarazi zuen Altsasuko Udaltzaingorako oposizio-erako deialdiaren onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak. Interesatuak 10 egun balioduneko epea dute erreklamazioak egiteko, eta hala bada gogio, egindako akatsak zuzentzeko. Sei gizonezko eta emakumezko bat dira onartutakoak.

Udaltzaingoak egunero goiz eta arratsalde zerbizua emateko 7 agente behar dituela jakinarazi du Javier Ollo Martinez. Aipatu oposizioaren bidez 3 iritsiko dira. Ollok pozik hartu du zerrenda argitaratzearen berria. Belexe Irratian (FM 107,3 edo [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)) esan duenez, "bazen garaia. Urte asko pasa dira. Nafarroako Gobernuak prozedura guztia aurrera eman nahi du apirilean hiru pertsona horiek Nafarroako Segurtasun Eskolan sartzeko". Hala balitz, herrian azaroan lan egiten hasiko lirake.

Ikastetxe horretan apirilean ziur sartuko direnak azken deialdian onartutako 2 agenteak dira. Bi horiek azaroan herrian lanean ziur hasiko direla esan du alka-

teak Sakanako irrati euskaldunean. Azkenik, udalak beste bi agente kontratatzeke oposizio-deialdia egitea onartu du. Hala 2017an jubilatutako agenteak ordezkatzeko dituzte. Gauzak ongi, oposizioa apirilerako despedituta egonen da eta aukeraturako gainerakoekin batera Nafarroako Segurtasun Eskolan sartuko lirake. "Horrek esan nahi du heldu den urteko azaroan, agian, 7 agente berri izanen ditugula. 2 seguru". Alkatearen ustez udaltzaingoa goiz eta arratsalde zerbizua ematen 2020an ikusiko da.

Bitartean, gaur egun, Altsasuko Udaltzaingoa 2 laguntzailez osatuta dago. Altsasuko Udalak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmena sinatu zuten. Horren bidez Foruzaingoak Udaltzaingoaren funtzio batzuk beretako hartu ditu garagarrilaren akaberara arte.



Gogoan proiektua udalaren esku uzteko hitzarmena sinatu zuten uinea. ARTXIBOA

# Historia-memoria ikertzeko beka deialdia

Institutuko historia klasean ikasleek ibarreko adinduei egindako elkarrizketetan oinarritutako ikerketa beka antolatu du Altsasuko Udalak. 700 eurokoa da eta 5 hilabete izanen dira lana egiteko

### ALTSASU

Altsasu Bigarren Hezkuntzako institutuko ikasleek 9 ikasturtean 300 elkarrizketa baino gehiago egin zituzten. Ibarreko pertsona adinduak ziren gazteek elkarrizketatzen zituztenak eta Frankismo garaiko eguneroko bizitzari buruzko testigantzak jasotzeko egiten ziren. Hori guztia da *Gogoan* proiektua eta hitzarmen baten bidez sortutako materiala Altsasuko Udalaren esku utzi duena.

Material horretan oinarrituta, Altsasuko edo Sakanako historia-memoriari buruzko ikerketa-beka deialdia egin berri du, 700 euroko diru-poltsa duena. Batxilergo ikasketak dituen edo-

zein pertsona aurkeztu daiteke deialdira, banaka edo taldeka. Bekaren hartzailleak 5 hilabete izanen ditu lana egiteko eta, behin despedituta, lana inprimatuta eta euskarri informatikoan Altsasuko udaletxean aurkeztu beharko du. Jakina, lana jatorrizkoa izan behar du. Bekaren hartzailleak diruaren erdia jakinarazpenarekin batera jasoko du eta beste erdia lana ematerakoan.

### Deialdia

Altsasuko Udalaren beka deialdian parte hartu nahi dutenek [www.altsasu.eus](http://www.altsasu.eus) web orrian dagoen eredia segituz eskaera aurkeztu beharko dute. Nortasun

agiriaren eta titulazioaren kopiekin batera, ikerketa-proiektuaren azalpen-memoria (izenburua, lan-hipotesia eta lortzea espero diren emaitzak, lanaren kudeaketa plana, ikerketa lanerako *Gogoan* proiektuko dokumentazioa kontsultatzearen garrantziaren zergatia azaldu eta ikerketa proposamenaren laburpena). Beka jaso eta bi hilabeteetara bekadunak Altsasuko Udalarari lanaren martxaren berri eman beharko dio. Eskabideak aurkezteko epea heldu den astelehenean despedituko da, 14:00etan. Udalak beka nori eman dion abenduaren 31n jakinaraziko du. Onuradunak lana egiteko 5 hilabete izanen ditu.

**Autoen aseguruak**

**JOSE ANTONIO IMAZ PRIM**  
948 563 354  
[jimazpr@mapfre.com](mailto:jimazpr@mapfre.com)  
San Juan 48 · ALTSASU

Zure esperientziarik onena  
**PREZIORIK ONENEAN**

Ogiaren artisauak

PORTUKO okindegia

Gozatu gabonak!

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153



Etxarriko gaztetxean egin zen mahai-inguruan jendea elkartu zen. ARBIZUKOAGA

## Gazte asanbladendako konstituzioa kapitalismoaren

Ibarreko hainbat gaztek salaketa hori Etxarri Aranatzan egin zuten abenduaren 6an, jardunaldien barruan

### SAKANA

Sakanako gazte asanbladek jardunaldien barruan, abenduaren 6an jai-egun arrotzei intsumisioa egiteko eguna antolatu zuten Etxarri Aranatzan. Iluntzean egindako manifestazioan adierazi zuten, “langileen mesedera dagoen gizarte bat eraikitzen hasten garen bitartean, funtsezkoa da espainiar eta frantziar estatuei zein gainontzeko dominazio mekanismoei zilegitasunik ez aitortu eta hauen aurrean intsumitzea”. 10 gazte asanbladetako ordezkariak “zapalkuntzarik gabeko gizarte aske bat” aldarrikatu zuten, “elkartasunean oinarritutako bide horretan antolakuntza eta borroka izan behar dira motorra”. Gazteek adierazi zuten “gainontzeko sektoreekin elkarlanean” aritzeko prest daudela: “Sakanako gazte asanbladak borroka horretarako tresna izaten ja-

rraituko dugu, gazteria antolatu eta borrokaren mesedera dauden tresnak”. Gazte asanbladek antolatutako manifestazioan azaldu zuten, 1978ko abenduaren 6a “espainiar trantsizio faltsua markatu zuen eguna” izan zela, “egun batetik bestera frankistak demokratik bilakatu zituen”. Frankismotik zetozen enpresarien, epaileen, polizien eta politikarien artean arazketarik ez zela egin gaztigitatu zuten. Nabarmendu zuten, Espainiako konstituzioa “mozorroa aldatzeko tresna gisa erabili zen, funtsezkoa berdintzetzeko, sistema kapitalista bere horretan mantentzeko. Horregatik, gaur atzo bezain beharrezkoa da normaltasun kapitalistaren aurka borrokatzea”. Gazteen iritziz “kapitalismoa bere gaitz guztiekin legezko egiten duen tresna da konstituzioa”.



SASOIA

## Pentsio duinen alde etenik gabe

Sasoia, Nafarroako jubilatuen eta pentsiodunen elkarteak deituta, pentsio sistema publikoa bermatzearen aldeko kontzentrazioa egin du Etxarriko eta Irurtzongo azoketan. Altsasan astelehenero moduan kontzentrazioa egin zuten, 19:00etan. Guztien eskubideak eta askatasunak gero eta okerrago daudela sumatzen dute eta horri aurre egitera deitu dute.



@BAKAIKU\_INFO

## BGAren ospakizunak zubian

Bakaikuko Gazte Asanbladak (BGA) 21. urteurrenerako egitaraua prestatu zuen. Abenduaren 1ean ginkana, kontzentrazioa eta afaria izan ziren. 6an, berriz, gaztetxean auzolana egin zuten. 7an, berriz, Durangoko Azokara irteera antolatu zuten. Larunbatean, pizza-pote girotua eskaini zuten. Musika aireak Talka taldeak eta Jotatxo dj-ren kontura izan ziren.



Zaporekoak arropa biltzen. UTZITAKOIA

## Errefuxiatuak epelduko dituen arropa bidalita

### SAKANA / HIRIBERRI ARAKIL

Azaro hasiera zen. Zaporeak gobernu kanpoko erakundeak Grezian dauden errefuxiatu eremuetarako neguko arropa eta oinetako bilteta hasi zuela jakinarazi zuen. Bilteta puntuetakoko bat Hiriberri Arakilen zegoen. Zaporeak-eko kideek pasa den astera arte neguko arropa biltzen egon dira. Jakinaz digitenez, jasotakoarekin 72 kutxa bete dituzte eta aurreikuspenak gainditu dituzte. Nafarroan bildutako arroparekin Zaporeak-eko kideek 4 kamioi bete dituzte, 40.000 kilo. Euskal Herritik, guztira, 14 kamioi abiatu dira. Neguko arropa hori guztia Calais, Lesbos, Chios eta Alepon banatuko da. *Jantzi Negua* kanpaina despedituta, Zaporeak-eko kideek jasotako laguntza eta babes eskertu dituzte.

**BIL TOKI**  
TABERNA • JETETKEA

948 467 876 • Altsasu

**Eñaut**

617 616 085  
enautigeltseritza@gmail.com  
Eraberritzeak  
Igeltseritza

## Gazte eguna Arbizon

Larunbatean ospatu zen Arbizuko gazte eguna. Goizetik hasi zen egitaraua. Burrunbarekin batera, Iruñeko Maravillas gaztetxeko elikagai bankurako jatekoak bildu zituzten. Eguerdian hasi zen paella txapelketa. Bazkaria, kantaldia eta erronka izan ziren arratsaldean. 20:00etan kontzentrazioa egin zen. Afaldu ondoren, hiru talderen kontzertuak izan ziren.



ARBIZUKO GAZTE ASANBLADA

## Musika eskolako zuzendaritza zabala

Udalekoak, familien eta ikasleen ordezkariak eta zuzendaria izanen dira zuzendaritza batzordean

### ALTSASU

Altsasuko Udalak musika eskolako estatutuak aldatzea eta eskola kontseilua desagertaraztea erabaki zuen azaroaren 28an egindako bilkuran. Aldaketa horrekin udal musika eta dantza eskolako komunitateak ikastetxeari dagozkion erabakietan parte hartzeko aukera eta bermea ematen zaio. Izan ere, udaleko bost kideez aparte (lehendakaria eta lehendakari-ordea haien artean aukeratzen da), ikasleen familien bi ordezkari, ikasle helduen ordezkari batek eta ikastetxeko zuzendariak osatuko dute batzordea. Orain arte hautetsiek hartzen zituzten erabakiak soilik.

Bilkura berean udalak erabaki zuen Sakanako Mankomunitateko Euskara Batzordeko bere ordezkari berria izendatzea. Ardura hori Asier Barandiaranek hartuko du. Galdakoztarra sortzez, Arbizun bizi da. Filologian doktorea eta Haur Hezkuntzan diplomatua eta 2011tik Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Departamentuko irakaslea da. Eusko Ikaskuntzako Nafarroako lehendakari-ordea da. Nafarroako Euskara Kontseiluko kide izan da.



Altsasun makina bat lan egiten ari dira oraintxe, eta heldu den urtean Zumalakarregi plazaren txanda izanen da. ARTXIBOA

## Zumalakarregi plaza berritzeko milioi erdi

Lanak heldu den urtean eginen dira, Bakea eta Amaia kaleko lanekin batera. Herrian diren hainbat lan dela eta, autobus geltokia Idertzegain kalera, Aita Barandiaran adinduen egoitzara aldatu dute eta maiatzera arte han izanen da

### ALTSASU

Altsasuko Udalak 503.700,75 euro bideratuko ditu Zumalakarregi plaza eraberritzeko. Udalak 315.702 euro jarriko ditu eta Nafarroako Gobernuaren erabilera askeko funtsetik 170.000 euro lan horretarako izanen dira. Funtse beretik pagatuko dira proiektuaren erredakzioa eta obra zuzendaritza, 17.998 euro zehazki. Udalaren asmoa da azken lan horiek Amaia eta Bakea kaleko lanen proiektua idatzi eta obra zuzenduko duen enpresa berari ematea. Horrela aipatu lanak aldi berean eginen dira. Udal ordezkariak aurreikusitako dute, Zumalakarregi plazan haurrendako jolas-parkea egonen

dela. Eta aztertzen ari da hori eta ekitaldietarako espazioa estalope batean egon daitezkeen.

Heldu den urtean berrituko dira Amaia eta Bakea kaleetako sareak eta zoladurak. Bakea kalean, zehazki, Zumalakarregi plazako zatia da berrituko dena, Akelarre taberna pareko kale zatia barne. Horregatik udalean plaza berritzeko lanak aldi berean egiteko nahia. Bi kaleetako lanen aurrekontua 1.031.000,61 eurokoa da, horietatik 609.857,62 euro inguru Tokiko Inbertsio Planaren bidez pagatuko dira.

### Lanak martxan

Ermita kalean hasi dira sareak eta zoladurak berritzeko lanak.

Haiek ilbeltzean Isidoro Melero kalean izanen dute segida. Hasiak dauden beste lan batzuk etxegabeen aterpekoak dira. Javier Ollo Martinez alkateak Belexe Irratian (FM 107,3 edo www.guaixe.eus) hasi duenez, 2019ko aurreneko hilabeteetan aterpeko altzariak jarriko dituzte eta martxorako edo apirilera azpiegitura zabalik izanen dela espero du. Aldi berean, Zelai kalean zebrabide goratuak eta Txiki Polita kaleko zoruak konpontzen ari dira langileak.

Hirigintza plan berria egiteko prozedura arautuko dituen oinarriak onartu ditu udalak aste honetan. Profesionalak aurkezteko bi hilabete emanen dituzte.

Ondoren lana eman eta plana egiten hasiko dira. “Denbora luzea beharko du”. Sakanako irrati euskalduneari Ollok esan duenez, “daukagun plana Altsasuko Udalarendako jada ez da tresna bat, baizik eta askotan arazo bat. Udaleko talde guztiok ikusi genuen hirigintza plan berri baten beharra”.

### Aita Barandiaran adinduen egoitza

Langileek lan karga handia dutela salatu dute behin baino gehiagotan. Horretaz aritzeko ere adinduen senideak udalarekin pasa dira. Ollok esan duenez, “momentuz dakiguna da Nafarroako Gobernuak adinduen egoitzen ratioak aldatuko dituela. Hori oso garrantzitsua da, horrekin guk lanpostu berriak atera ditzakegulako. Egoitzako patronatua orain aztertzen ari gara eta ratioak aldatu bitartean behin behineko kontratazioak egitea da”. Alkateak azaldu duenez, “egia da langile gehiago beharrezkoak direla. Ez bakarrik Altsasuko egoitzan, beste batzuetan ere”. Eta horren zergatia argitu du: “egoitzetan bizi diren pertsonen profila aldatu egin da. Duela 15-20 urte ez zegoen orain dugun mendekotasuna. Orain egoitzan bizi diren pertsona gehienek mendekotasun handia dute eta horrek langile gehiago izatea eskatzen du”. Gobernuaren ratio aldaketa heldu den urtean izanen dela espero du alkateak.

Bestetik, Altsasuko autobus geltokia Aita Barandiaran egoitzaren ondoan dago astelehenaz geroztik. Isidoro Melero kaleko sareak eta zoruak berritzeko lanak irauten duten bitartean autobus geltokia Idertzegain kalean egonen da, maiatzera arte.

ABENDUAK 24 ETA 31RAKO

# Enkarguak jasotzen dira

ETA URTERO BEZALA EGUN HAUETAN,  
**GURE OGI BEREZIA**  
HARRIZKO LABEAN EGINA

ZUREKIN 1964 GEROZTIK

# Amaya

OKINDEGIA

<p><b>OLAZTI</b> 948 468 755 • Orreaga Kalea, 1</p>	<p><b>ETXARRI-ARANATZ</b> 948 461 660 • Kale Nagusia, 4</p>	<p><b>ARAJA</b> 945 314 572 • Andoni Urrestarazu, 3</p>	<p><b>VITORIA-GASTEIZ</b> 945 148 368 • Arriagako Atea, 12</p>
<p><b>ALTSASU</b> 678 323 403 • Iruña Hiribidea, 48</p>	<p>948 468 026 • Zumalakarregi Plaza, 3</p>	<p>670 389 017 • San Juan Kalea, 50</p>	<p>948 562 185 • Otadiko Kristo Deuna, 19</p>



Artisten urte guztiko lana ikusgai dago Olatzagutian, Sakanako Belenzaleen Elkartearen egoitzan.

# Jaiotzetan artistak

Ilbeltzaren 7ra arte dago ikusgai, astelehenetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara eta domekak eta jai egunetan 13:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era

## OLATZAGUTIA

Atzera ere agerian gelditu da Sakanako Belenzaleen Elkartearen maila handiaren tamaina. Dozena bat jaiotzaz osatutako erakusketa prestatu dute. Hainbat dentsitateko porespanari mendi, harri, etxe, lur, zutabe eta bestelako testurak emateko ezta inua urtzeko gailua eta kultura erabili dituzte lehenik, margoak, kola eta goroldioa ondoren. Horrela, bateko eta besteko txokoak irudikatu dituzte, mugagabeko pazientziarekin, hainbat oztopori aurre eginez eta erabateko dedikazioz.

Erakusketa bukatzean elkarreko kideek jaiotzak jaso eta biltegira eramaten dituzte. Horrela, hutsik gelditutako espazioan zuzenean jaiotza berria egiten hasten dira. Aurtengo negu eta udaberri euritsuarekin eta bestelako arrazoirengatik hori guztia ezin izan dute egin orain gutxira arte. Eta Felipe

Orabengoak esan digunez, “horrek tokian bertan lan egitea eragotzi digu eta bi astetan aurrekoak desmuntatu eta berriak muntatu behar izan ditugu”.

Jaiotzak egiteko langintzari Katy Mayor, Felipe Orabengo, Paco Sanz, Emeterio Galan, Luis Borrega, Jesus Mari Garmendia, Javier Beunza eta Saturio Flores lotu zaie aurretan. Orabengoak azaldu digunez, ikusgai dauden 12 jaiotzetatik 7 berriak dira eta beste 5ak aurreko urteetakoak. Haietako bat Euskal Herriko elkartearen erakusketan egondakoa. Jaiotzak egiterakoan argazkietan oinarritzen direla jakinarazi digu Orabengoak. Jakinarazi digunez, elkarteki-deak aurretan Badajoz, Sevilla Mollna (Malaga), Murtzia eta Valentziako jaiotzak ezagutuko dituzte, “hangoei bisita bueltatuz”.

Sakanako Belenzaleen Elkartek 40 bat bazkidek osatzen dute.

Normalean dirua ateratzeko jaiotza baten zozketa egiten dute eta txartelak erakusketa tokian salgai izaten dituzte. Baina aurretan ezinezkoa izan da. Beraz, han jarritako kutxan diru-ekarpenak egin nahi dutenek horretarako aukera izanen dute ere. Orabengoak jakinarazi duenez, jaiotzak nola egiten dituzten erakusteko tailerrak emateko prest daude.

## 12 dioramak

5 metro karratuko azalera hartzen du jaiotza bakoitzak eta bakoitzean Jesusen eta haren gurasoen dozena bat pasarte jasotzen dira: Ama Birjinaren berri ematea; Erroldatzea; Ostatua bila; Jesusen jaiotza; Jesusen haurtzarora; Artzainei berri ematea; Artzainen adorazioa; Erregeen kabalgata; Errege Magoen adorazioa; Lehen urratsak; Egiptora ihesa eta Zurgindegia.



Jesusen jaiotzaren pasartearen duen jaiotza.



Artzainei jaiotzaren berri ematen dieten uenea.



Artzainen gurtza. Kortexoz egindako jaiotza bakarra.



Erregeen kabalgata.



Euri urak bideratu, zorua berritu eta espaloiak eginen dituzte Dona Maria kalean.

# Lanak Dona Maria kaleko goiko partean

Euriteak daudenean ur-biltegiko bidetik behera etortzen den ura egoki bideratu eta etxeetan kalteak ez sortzeko egiten ari dira lan horiek. Bestetik, agorrilaz geroztik herriko araztegia martxan dago eta egoki ari da lanean

## ZIORDIA

“Kaleak berritzeko aurretik egindako lanetatik kanpo gelditu zen Dona Maria kalearen goiko partea da egokitzen ari dena orain”. Ziordiko alkate Patxi Goikoetxearen azalpenak dira horiek. Zehazki udaletxe ondoko pisu blokearen paretik hasi eta ur biltegiara joateko pistarekin, Lurgorrietako bidearekin bat egiten duen arte hartzen du lanak. Euri urak bildu, zorua berritu eta espaloiak jartzeko lanak dira. Goikoetxeak azaldu digunez, “euria egiten duenean Lurgorrietako bidetik ur asko jaisten da eta goiko etxeetan arazoak sortzen dira”. Lanak eginda ur horiek egoki jaso nahi dituzte, beraz.

Construcciones Santesteban enpresa da lanak egiten ari dena. Duela hilabete hasi ziren eta ilbeltzean despeditzea aurreikusten dute, “beti ere, eguraldiaren arabera”. Alkateak jakinarazi digunez, udaletxe ondoko pisuen atearren parean zebrabi-

de goratua izanen da eta kaleaz bestaldeko etxe zaharraren parean espaloia eginen dute. Lanek 212.000 euroko aurrekontua dute eta Nafarroako Gobernuaren Tokiko Azpiegitura Planaren bidez 74.000 euro ordainduko dira.

## Araztegia martxan

Texeria bidean, Olatzagutiarako bidean, Ziorditik 520 bat metro-ra dago ur beltzen araztegi berria, agorritik martxan dena. Araztegiez arduratzen den Nilsa enpresa publikoak ura ibaira behar den bezala botatzen duela jakinarazi dio Ziordiko Udalarari. Araztegi berriko lanak joan den urteko garagarriean hasi ziren. Nilsa enpresa publikoak eraiki du, 738.619 euroko (BEZ kanpo) aurrekontuarekin. Ur araztegi berriak Mirari kale ondoan zegoen hobi septikoa ordezkatu du. Han Ziordiko ur zikinak biltzen segituko dute, baina hodi baten bidez araztegitiraino iristen dira. Azpiegitu-

ra berriak batzuetan sortzen ziren usain txarrak eta noizean behin ibaira izaten ziren ur beltzen isurketa saihestuko ditu.

Bestalde, Aralur enpresaren inguruan dagoen materia organikoa noiz kendu zain daude Ziordiko Udalean. Sakanako Mankomunitatean Arbizuko hondakindegian egokitzeko zati bat hartuko du. Alkateak esan digunez, zatirik txikiena eta kutsagarriak ez diren paperfabriketako lohiak izanen dira. Gainontzekoa materia organikoa omen da. Lantegiaren teilatua 2016an behera egin zuen, elurraren zamarekin. Haize egunean hango txapek arrisku egoerak sortzen dituztelako, udaletik enpresaren hartzekodunen konkurtsua kudeatzen duen administratzailearekin harremanetan jarri behar izan dute.

Bestetik, Ziordiko Udalak jakinarazi duenez herriko bake epaile eta ordezkoren karguak hutsik daude. Interesatuak 15 egun dituzte eskabideak egiteko.

# NON ERABILI?



## LOREGINTZA

LAKUNTZA

40€ko erosketarekin, %10eko deskontua lorontzietan.

## ILAIA ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ

Deskontu bereziak.

## T. IRIARTE

IRURTZUN

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

## JOSELEN MODA

ALTSASU

100€tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

## IÑAKI BIZARTEGI-ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ

%10 eko deskontua produktuetan.

## AMEZTIA FISIOTERAPIA

ALTSASU

bakarkako sesioetan %5eko deskontua.

## NUEVA IMAGEN

ALTSASU

%10eko deskontua.

## ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

## LOGURE

ALTSASU

%15eko deskontua atsedenean.

## ML MODA

ALTSASU

100€tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.



Luisek Mexikoko kulturaz hitz egin die haurrei.

## Maroko eta Mexiko ikasgaiak eskolan

Zelandi ikastetxe publikoan laugarren urtez kulturartekotasuna landu dute ikasleek. Gurasoek antolatuta, Marokoko ramadana eta Mexikoko hildakoen egunen berri jaso zuten atzo. Gaur du segida esperientziak

### ALTSASU

Zelandi eskola publikoaren baitan dagoen aniztasuna ikasleek zentzu positiboan eta gertu sentitzeko helburuz, kulturarteko topaketak antolatu dira. Horrela, ikasleen artean elkarbizitza positiborako haziak landatu nahi dira. Bi jardunaldi horietan Maroko ramadana eta Mexikoko hildakoen eguna ezagutzeko aukera izanen dute 431 ikasleek. Zehazki, nola eta zergatik ospatzen den.

### Bi gela, bi kultura

Nora da Maroko ramadanaren berri ematen ari dena, txikienei bideoaren laguntzaz eta kokorragoei, berak, hitzez. Azaltzen

die ramadana musulmanen egutegiko 9. hilabetea dela eta bat egiten duela Mohamed profetari koran liburu sakratuaren aurreneko errebelazioarekin. Lau funtzio dituela azaltzen die: erlijioa, osasuna (gorputzaren purifikazioa), burukoa (borondatea indartu) eta morala (jakiak ez dituztenak ulertzea). Hilabete irauten duela azaldu ondoren, gauez jateko aukera badutela azaltzen diete. Eta horren erakusgarri tea, zopa, pastak, fruitu lehorrak edota ogia dastatzeko aukera ematen diete ikasleei. Guztia andalusi musikaz girotuta. Norak esan digunez, "haurrak pozik daude, dena dastatzen dute eta arabia-

rrerz hitz egiten dute, sukram, esaterako".

Luisek, berriz, txarroz jantzita, Mexikoko hildakoen eguna Maya kulturarekin zerikusia duela azaltzen die. Berez, azaroaren 2an ospatzen da baina lastailaren 28tik ospatzen dutela argitu die ikasleei. "Mayendako lurpeko mundua zegoen. Horregatik, prestatzen diren aldareek hiru altura dituzte. Bata lurraren parean dago eta lurpeko munduarekin du lotura". Altura bat gorago errealitatearekin lotura duen zatia dago eta azkenik, gorago, aldarea. "Azken horretan gure hildakoaren argakia dugu, harekin erlazioatze". Aldarean hildakoaren

gogoko gauzak jartzen dituzte, jan-edanak eta bestelakoak. Buru-hezurak edertuta egoten dira aldare horiek. Ospakizunean jangarriak diren buru-hezurak eta hildakoen ogia dastatzen dutela ere jakinarazi die ikasleei.

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak eta Zelandiko guraso elkarteak antolatu dituzte jardunaldiak. Elkarteko ekintza taldeko Pili Cominek esan digunez, gurasoen artean deialdia egin zuten eta Nora eta Luis boluntario eskaini ziren. Haiekin izandako hizketaldietatik sortu zen bi herrietako ospakizunen inguruko kulturartekotasun saioak egitea. Horren osagarri, ikasleek ere klasean irakasleekin berdintasuna eta aniztasuna landu dituzte. Horren isla da ikastetxeko pasabideetan dauden marrazkiak, muralak edo hainbat tokitako menuak. Aniztasunari buruzko antolatzen duten 4. jardunaldia da, 2015ean hasi baitziren.



Norak ramadanari buruz.



Uharte Arakilgo eskola.

## Eskola euskarazko kalitatezko sarean

Uharte Arakilgo eskolarekin batera sare hori beste 6 ikastetxe publikok osatu dute

### UHARTE ARAKIL

San Migel ikastetxe publikoa ikasturte honetan euskarazko kalitatezko sare batean sartu da. Kadinet sarearen baitan Uharte Arakilgo eskola D eredu beste sei eskolarekin batera sare berria sortu dute. Agoitz, Barañain, Sarriguren eta Iruñeko beste hiru ikastetxek sortu dute aipatu sarea. Halaxe jakinarazi du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak gaur, ikastetxe publikoek kalitatea hobetzeko egiten duten lana aitortzeko ekitaldian. Kadinet ikastetxeen kudeaketa hobetu eta zuzendaritza taldeen lidergoa bultzatzeko proiektua da.

## AHT-ren kontrako taldeak bere burua aurkeztuko du

Asteazkenean, 19:00etan, lortia kultur gunean izanen da. AHT-ren proiektuaren berri emanen dute

### ALTSASU

Sakana Trenaren Alde plataformak Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektuari 2.852 alegazio aurkeztu zizkion. Haie-tatik soilik 199 ziren Altsasun jasoak. Eta horrek zenbaiten

artean arreta piztu zuen. AHT egitasmoaren kontra jendea aktibatze asmoz Altsasun antolatzea erabaki zuten. Eta tren egitasmoaren kontra egiten duen taldea eratzeko lanean aritu dira ordutik, euren iritziz

AHT egitasmoa "antisoziala, ekologiaren kontrakoa eta baliabide ekonomikoaren xahutzailerlea delako"

Altsasuko plataformaren jendaurreko aurkezpenera asteazkenean egingen dute hitzaldi baten bidez. Hiru hizlari izanen dira, Sakana Trenaren Alde plataformako Altsasuko kide batek hartuko du hitza. Baina beste bi hizlari ere izanen dira. Batek Arabako Lautadako borrokaren nondik norakoak azalduko ditu, besteak beste, nola antolatu di-



AHTren aurkako txiririnda martxa. ARTXIBOA

ren egitasmoari aurre egiteko. Besteak, berriz, AHTren egitasmoak Sakanan izanen duen eragina eta egiteko modua azalduko ditu.

AHTren kontrako Altsasuko plataformatik aurkezpenera joateko gonbidapena egin dute. Horrekin batera, jakinarazi dute gaztetxean pintxo-pote berezia egonen dela, gaur, 20:30etik aurrera. Aldi berean, AHT egitasmoa bertan behera uztea eskatzeko egingen diren mobilizazioetan parte hartzea deitu dute.



Lehen jardunaldiko partida bat. IÑIGO ARITZA

## Iñigo Aritza txapelketako jardunaldia etzi Olaztin

**PILOTA** Olaztik hartuko du ikastolako txapelketaren 3. jardunaldia, igandean, 16:30ean

50 neska-mutiko ari dira lehen Iñigo Aritza ikastolako pilota txapelketan. Igandean Olaztin jokatuko dute, ikastolako frontoian jaialdia dagoelako bihar. **Emaitzak:** guaix.eus

### 3. jardunaldia

#### Umeak, benjaminak

- Ekhi Azpilikueta – Egoi Urtaşun
- Igarki Agirre – Edorta Amillano
- Ekaitz Zufiaurre – Ekaitz Berdud
- Alaine Mendia – Anitz Anda
- Juna Mendia – Ekhiñe Mariñelarena
- Bidane Fdez. de Garaialde – Garazi Gartzia
- Kimetz Flores – Harri Mitxelena
- Urko Lanza – Ioar Oroz

#### Kimuak

- Asier Zubiria – Beñat Andueza
- Mikel Arrizabalaga – Aiora Agirretxe
- Oier Carabias – Xabier Olaiz
- Hodei Ulaizar – Eñaut Gastesi
- Enaitz Gonzalez – Aimar Igoa
- Alaitz Lanza – Haizea S. Roman
- Ane Diaz – Amets Izquierdo
- Uxue Anguiano – June Sanzol
- Ainhitze Armentia – Iraide Vergara

#### Haurrak

- Iker Agudelo – Aimar Gracia
- Eneko Andueza – Aimar Bengoetxea



Ostiralean Arbizon herritarren omenaldia jaso ondoren, larunbatean Helvetia-Guadalajarako ohorezko sakea egin zuen. HELVETIA

# Ea Bombonerak zorte bera ematen dion

**PILOTA** Ezkurdiak eta Galarzak Olaizola II.a eta Albisu izango dituzte aurkari bihar Labriten, Altuna III.ak eta Martijak Zabalaren eta Aretxabaletaren kontra jokatu dute igandean Donostian eta atzo Zabaleta eta Iribarria aritu ziren Urretxuko Santaluzitan

Atzo hasi zen Binakako ligaxkakako 4. jardunaldia, Santa Luzia eguneko Urretxuko jaialdian. Iribarria eta Zabaleta (puntu 1) Artolaren eta Mariezkurrena II.aren (2 puntu) kontra aritu ziren. Guaixeko erredakzioa isterakoan partida jokatu gabe zegoen, eta, hortaz, ez dakigu zer gertatu zen, baina material aukeraketan Zabaletak egoerari buelta ematea espero zuen.

Izan ere, Arbizon aurreko ostiralean jokatuako partidaren Ezkurdiak eta Galarzak 8 tantotan utzi zituzten Iribarria eta Zabaleta. "Ez genuen ezer ere asmatu. Espero dezagun txapelketa guztiko partidarik okerre-na Arbizukoa izatea eta hortik gora egitea" aitortu zuen Etxarrengo atzelariak. Artola eta Mariezkurrenaren kontrako partida "zaila" izango zela aurreikusten zuen, "primerako maila" ematen ari direlako. "Gugure maila ematera eta akats tontoak ekiditera atera beharko gara kantzara" gaineratu zuen.

#### Herriko omenaldiak indarra eman zion Ezkurdiari

Esan bezala, aurreko ostiralean 3. jardunaldiko partida jokatu zuten Joseba Ezkurdiak eta Ladis Galarzak Iker Iribarriaren eta Jose Javier Zabaletaren kontra. Frontoia beteta, herritarren omenaldi beroa jaso zuen Lau t'erdiko txapeldunak. Bibolin doinuekin eskainitako arrreskua eta hainbat oroigarri jaso zituen Ezkurdiak, Arbizuko pilota eskolako pilotariak alboan zituela. Eta badirudi herritarren aitortzak indar handia eman ziola Arbizuko aurrelariari, partida bikaina egin baitzuen.

Ikusgarri aritu zen, partidaren zama bere gainean hartu eta Galarzari pilota asko kendu zizkion. Erasoan eta defentsan bikain aritu zen. Aldiz, Zabaletak ez zuen bere maila eman, akats asko egin zituen, eta ostirala ezta ez zen Iribarriaren eguna izan. Horrela, azkenean 22 eta 8 irabazi zuten Ezkurdiak eta Galarzak eta txapelketako

lehen puntua lortu zuten, sentsazio onak berreskuratzeko behar-beharrezkoa zutena.

Iruñeko Bombonerak zorte bera ematea esperoko du Ezkurdiak, bihar, larunbatean, 17:00etan hasiko den jaialdian Joseba Ezkurdiak eta Ladis Galarza Aimar Olaizolaren eta Jon Ander Albisuren kontra ariko baitira (ETB1). Asteazkenean aukeratu zituzten pilotak, Labriten, Ezkurdiak, Galarzak, Olaizola II.ak eta Albisuk. Asegarcekoek 3 puntu dituzte eta sailkapenean liderrak dira, faboritoak, baina "partidaz partida" joan behar direla nabarmendu zuen Olaizolak. Ezkurdiak, bi porroten ondoren Arbizon izandako erreakzio bikai-

### EZKURDIA OSTIRALEAN ARBIZUN OMENDU ZUTEN ETA LARUNBATEAN IRUÑEAN

na nabarmendu zuen eta bide horretan jarraitzeko gogoia berretsi zuen.

#### Altunak eta Martijak ezin izan zuten hirugarren puntua lortu

Altunak eta Martijak Elezkano II.a eta Rezusta izan zituzten aurkari aurreko larunbatean Labriten. Aurreko bi jardunaldietan irabazi eta gero, faboritoak ziren Altuna eta Martija, baina Amezketaoak ez zuen bere maila eman, akats ugari egin zituen eta horrek airea ematen zuten puntu bat zuten Elezkano II.ari eta Rezustari. Martijak ongi eutsi zion Rezustari eta, hortaz, aurreko koadroetan erabaki zen guztia. Sekulako hutsak tanto ederrekin tartekatu zituen Amezketaoak, eta Altunaren itsaso nahasian ederki arrantzatzen jakin zuen Elezkanok. Horrek are gehiago amorrarazi zuen Altuna, eta nahiz eta gipuzkoarra eta Etxeberrikoa 17 eta 21 gerturatu, ezin izan zuten erremontada gauzatu eta, azkenean, 17 eta 22 galdu zuten.

Igandean arantza ateratzeko aukera dute Altuna III.ak eta Martijak, Urutikoetxea ordezkatuko duen Larunberen eta Aretxabaletaren kontra lehiatuko baitira, Donostiako Atano III.ean, 17:00etan (ETB1).

Bukatzeko, gaur, ostiralean, 19:30ean, Arrigorriagan, Bengoetxea VI.ak eta Imazek Elezkano II.a eta Rezusta izango dituzte aurkari (ETB1).

#### Helvetia Anaitasunak Ezkurdiak omendu zuten

Frontoia utzi eta Anaitasuna pabilioira hurbildu zen larunbatean Joseba Ezkurdiak pilotaria. Eskubaloiko Asobal Ligan dabilen Helvetia Anaitasuna taldeak Lau t'erdiko pilotari txapelduna omendu nahi izan zuen eta Joseba Ezkurdiak egin zuen Helvetia eta Guadalajara taldeen arteko partidako ohorezko sakea. Bezperan Arbizon omenaldia jaso eta gero, Anaitasunako kantxan bildu ziren 1.100 eskubaloiko zaleen omenaldia jaso zuen arbizuarra. Ondoren, ohorezko palkoan jarraitu zuen partida, Juan Martinez de Irujorekin batera. Sarritan joaten omen da pilotari arbizuarra Helvetiako partidak ikustera. Badirudi zortea eman ziola Ezkurdiak Helvetiari, 31 eta 29 irabazi baitzieten Guadalajarari.

## SAKANAKO TOPAKETAK

## PARTIDUAK

IGANDEAN BENJAMINAK ETXARRIN

10:00 Sutegi 1 - Urdiain

10:50 Sutegi A - Etxarri A

11:40 Altsasu C - Altsasu A

12:30 Aralar Mendi 1 - Etxarri 1

13:20 Altsasu B - Aralar Mendi A

IGANDEAN KIMUAK URDIAINEN

12:00 Lagun Artea 07 - Urdiain

IGANDEAN KIMUAK ALTSASUN

12:00 Tipi Tapa - Etxarri Aranatz A

12:00 Lagun Artea 08 - Etxarri Aranatz 1

## Sakanako Futbol Topaketak

Igandean benjaminen 3. jardunaldia jokatu da Etxarri eta kimuen 5. jardunaldia Urdiainen eta Altsasun

## ELOMENDI TXAPELKETA

## 9. JARDUNALDIKO EMAITZA

Zaldua - Apolo 0-2

## ATZERATUTAK PARTIDA, EMAITZA

Zaldua - Izalsa 4-1

## 10. JARDUNALDIKO EMAITZA

Barasoain - Zaldua 0-3

## SAILKAPENA

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

1 Zaldua 22

2 Elomendi 22

## Zaldua berriro lider

Elomendiko Futbol Txapelketan bi astetan hiru partida jokatu ditu Zalduak, 9. jardunaldikoa, atzeratua zuen beste partida bat eta asteburu honetan jokatzea zena. Hirurak irabazita, berriro ere lider dugu Arakilgo taldea.

## SASKIBALOIA CBASK-ek Larraonari irabazi zion eta 6.a da

Autonomia Artero 2. mailan abenduaren 1ean 9. jardunaldia jokatu zuten CBASK Altsasuk eta Larraona A taldeak Altsasuko Zelandi kiroldegian. Etxean jokatzeak airea eman zion Altsasuri eta garaipen polita lortu zuten altsasuarrek, 87 eta 66 irabazi baitzieten Larraonakoiei.

Autonomia Artero 2. mailako lider berria CB Cenicero La Alcohola da (16 puntu). CBASK-ek seigarren postuari eusten dio (12 puntu). Bihar, larunbatean, atzera ere etxean jokatu du CBASKek, Zelandin, 18:00etan, sailkapenean zortzigarrena den Aranguren Mutilbasket taldearen kontra. Ea garaipenak segida duen.



Etxarri Aranatz pilota klubarekin lehiatu ziren pilotariak. PILOTABIZI PELOTAZALEEN ELKARTEA

# Etxarri Euskal Herriko klubaren artekotik kanpo

**PILOTA** Amurrio taldeak Etxarri Aranatz irabazi zion Euskal Herriko Klubaren Arteko V. Txapelketa Nazionalako aurre fasean. Irurtzun kluba final laurdenetako multzoburuetako bat da eta otsailean sartuko da lehian

Abenduaren hasieran abiatu zen Pilotabizi Pelotazaleen Elkartek antolatutako Euskal Herriko Klubaren Arteko V. Txapelketa Nazionala. Aurten inoiz baino parte-hartze handiagoa du txapelketak, 24 klubek eman baitzuten izena, tartean bi talde sakandarrek, Irurtzun klubak eta Etxarri Aranatz klubak.

Aurreko urteko txapelketako txapeldunordea da Irurtzun eta, horregatik, final laurdenetako multzoburuetako bat da eta otsailean sartuko da lehian. Aldiz, Etxarri Aranatzek aurten debutatu du eta, horregatik txapelketako aurre fasean ekin zion txapelketari, abenduaren hasieran Amurrioren jokatutako lehian.

**Etxarri vs Amurrio, aurre fasean** Etxarri Aranatzek Amurrio izan zuen aurkari aurre fasean. Hiru partida izan zituzten jokoan parte hartzaileek.

Lau t'erdian Ansotegik ordezkatu zuen Etxarri, Amurrioko Guerreroren kontra aritzeko. 18 eta 9 gailendu zitzaion Guerrero Ansotegiri. Ondoan Banakakoaren txanda izan zen, eta Etxarri klubeko Petriatik eta Amurrioko Iriartek jokatu zuten partida erabakiorra. Kasu honetan ere jokoan zegoen puntua Amurrioren saskira joan zen, 18 eta 10 gailendu baitzen Iriarte. Horrela, hurrengo fasera sailkatzea lortu zuen Amurriok, Etxarriren kalterako.

Binakako partidaren Otxoa eta Lazkoz etxarriarrek Zabaleta eta Albizuri Amurriokoak izan zituzten aurkari. Ez zegoen ezer jokoan, Amurriok txapelketan aurrera egitea lortu baitzuen, baina bi bikoek dena eman zuten eta partida oso lehiatua izan zen. Justu-justu baina partida honetan ere arabarrak gailendu ziren, 22 eta 20.

Hortaz, Amurriok irabazi zuen aurre fasean eta berak egin du aurre EHko klubaren artekoan. Etxarri aldiz, bidean geratu da, baina esperientzia polita izan dela ezin da ukatu. Geratzen zaigun ordezkarri bakarra, Irurtzun final laurdenetan sartuko da lehian, otsailean.

## Sakandarrak Igorren

**ZIKLOKROSA** XLII. Igorreko Ziklokrosean kadeteetan Quesos Albenizko Jon Chamorro 19.a sailkatu zen (30:30), bere taldekide Oihan Anton 33.a (31:54), haien kide Mikel Uncilla 38.a (32:18) eta Intersport Irabiako Aimar Tadeo 45.a (34:02). Eta juniorretan Quesos Albenizko Iker Mintegi 21.a iritsi zen helmugara (48:02).



BIZKAIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

## FUTBOL PREFERENTEA

## 12. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri Aranatz - Burlades 1-1

## SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Artajones 22

4 Etxarri Aranatz 19

## PARTIDUA

IGANDEAN LIGAKO PARTIDA

12:45 Itaroa Huarte - Etxarri (Areta)

## Etxarri laugarrenari eusten dio

Ligako partidaren Javik Etxarri aurreratu zuen, baina bigarren zatian Burladesek berdindu zuen. Eta IMQ Kopako partidaren Etxarri final zortzirenetarako sailkatu da abenduaren 6ko final hamaseirenetan Oberenari 0 eta 1 irabazi eta gero.

## FUTBOL ERREGIONALA

## 13. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Gazte Berriak - Lagun Artea 0-3

Iruña B - Altsasu 0-1

## SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Lagun Artea 32

4 Altsasu 24

## PARTIDUAK

IGANDEAN

15:30 Lagun Artea - Iruña B (Lakurtzan)

16:00 Altsasu - Ardoi B (Dantzalekun)

## Lagunek eta Altsasuk irabazi

Erregionaleko gure bi taldeendako beste jardunaldi borobila izan zen azkenekoa. Antsoainen Lagun Artero jokalariek nagusi izan ziren bigarren zatian eta Unaik (2) eta Anderrek sartutako golei esker, irabazteaz gain lidergoari eutsi zioten lakuntzarrek. Eta Taxoaren, partida oso lehiatua, 0 eta 1 irabazi zion Altsasuk Iruña B taldeari Imanol Lobok sartutako gol bati esker.

## EMAKUM. ERREGIONALA

## 13. JARDUNALDIKO EMAITZA

Baztan - Altsasu 1-0

## 14. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Peña Sport 1-2

## SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Lagunak 40

12 Altsasu 13

## PARTIDUAK

ZEHAZTU GABE

Zehaztu gabe Altsasu - Gazte Berriak (Dantzalekun)

## Bi porrot jarraian

Azken bi partidak galdu eta gero, sailkapenean postu bat egin dute behera altsasuarrek.





Yoseikan budo taldeak euskara gehien sustatzen duen taldearen saria jasoko du.

## Sakanako kirolaririk onenek gaur jasoko dute oroigarria

**KIROLDEGIA** Ihabarko herriko etxeak hartuko du sari ematea gaur, ostiralean, 19:30ean, herriko etxean

Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak 2017 eta 2018ko Sakanako kirolaririk onenek aukeratu ditu. 18 urte baino gutxiagokoen artean Unai Villalobos Hernaz irristalari eta txirrindularia eta Olga Gardiandia Ijurko ipar eskiatzaila, rollerskilaria eta biatloilari izendatu dituzte kirolari onenak; 18-35 urte bitartekotan, aldiz, Ekhi Congil monoziklista eta Izar Parot eta Olaia Eizagirre palistak eta 35 urte bitarteko Jose Luis Beraza mendi korrikalaria eta Ginesa Lopez Cid korrikalaria

izan dira sarituak. Taldeei dagokienez, Aralar eta Burunda txirrindularitza klubek jasoko dute talderik hoberearen saria. Euskara gehien bulkatu duen kirol taldearen oroigarria yoseikan budo taldeak jasoko du, eta, bukatzeko, bi aipamen berezi egingo ditu Mank-ek, bata Imanol Irurtzun Artola arbitroari eta, bestea, Arakilgo Xaniturri emakume taldeari.

Sari emate ekitaldia gaur, ostiralean, 19:30ean egingen da Ihabarko herriko etxean. Ondoren auzatea izanen da.

## Naiara Diezen Gernika Bizkaia EuroCupeko 2. fasera sailkatu da

**SASKIBALOA** Atzo 84-66 irabazi zioten Portugalgo Uniao Sportiva taldeari eta lorpen historikoa lortu du

Naiara Diez saskibaloiari altsasuarraren Gernika Bizkaia taldea EuroCupeko 2. fasean ariko da lehendabiziko aldiz bere historian. Asteazkenean Eurocupeko lehen faseko azkeneko jardunaldian Uniao Sportiva talde portugaldarrari 84 eta 66 irabazi zion Gernika Bizkaia. Horretaz gain, Spar Citylift Gironak 56 eta 78 irabazi zionez Hungariako Uni Györ taldeari, F Multzoko bigarren postuan sailkatu dira bizkaitarrak eta Eurocupeko 2. faserako sailkatu da Gernika Bizkaia.

Portugaleko taldearen kontrako partidako lehen hiru laurdenetan paretsu aritu ziren Gernika Bizkaia eta Uniao Sportiva (57 eta 54), eta laugarren laurdenak erabaki zuen. Azkenean, 84 eta 66 irabazi zuten bizkaitarrek, eta Uni Györrek galdu zuenez, aurrera egin du EuroCup txapelketan.

Primerako denboraldia darma Gernika Bizkaia eta historia egin dute, EuroCupeko playoffak jokatu dituztelako lehen aldiz, Mario Lopez entrenatzailearen esanetara.

# Osasuna Magnaren txanponaren bi aldeak

**ARETO FUTBOLA** Talde berdea otsailaren 28tik martxoaren 3ra Valentzian jokatu den Espainiako Kopa jokatzeko sailkatu da baina Errege Kopatik kanpo geratu zen asteartean, O'Parrulo Ferrolen kontra 1 eta 5 galdu eta gero

Osasuna Magna Xotak txanponaren bi aldeak bizi izan ditu azken egunotan. Batetik, aurreko ostiralean Segoviaren kontra ligako partida garrantzitsua jokatu zuten berdeek, Espainiako Kopa jokatzeko baitzegoen jokoan. Hasieratik irabaztera ateratu zen Imanol Arregiren taldea. Ez zen erraza izan, Segoviaren defentsa oso sendoa baitzen, baina Roberto Martil, Bynho eta Araça jokalarien golei esker 3 eta 0 irabazi zuten berdeek, garaipen oso garrantzitsua.

### Garaipen justutik...

"Ez da partida erraza izan, Segovia oso arerio deserosoa baita, izugarri estutzen duena. Baina lortu dugu eta garaipen justua da" aipatu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak partida bukaeran. Horrela, otsailaren 28tik martxoaren 3ra bitartean Valentzian jokatu den Espainiako Koparako sailkatu da Osasuna Magna.



Alex Llamas selekziara deitu dute. XOTA

### ... porrot mingarrira

Asteartean Osasuna Magna Errege Kopatik kanpo geratu zen, final zortzirenetan, inork espero ez zuena. Etxean jokatzeko zuten Osasuna Magnak, zaleen babesa zuten, faboritua zen...

baina galiziarrek sorpresa eman zuten eta 1 eta 5 irabazi zieten nafarrei. "Oso gaizki aritu gara, huts egin ezin diren jokaldiak huts egin ditugu... O'Parrulo merezitako garailea da" adierazi zuen Arregik. Chinok azken partida jokatu zuen Osasuna Magnarekin eta berak sartu zuen talde berdearen gol bakarra.

### Levanteren kontra bihar

Ligako lehen mailako liderra Barça Lassa da (32 puntu), El Pozo Murcia bigarrenarekin puntutara berdinduta. Osasuna Magna seigarrena da (24 puntu). Bihar, larunbatean, 26 punturakin sailkapenean bosgarrena den Levanteren kontra ariko da Osasuna Magna, 18:00etan.

### Llamas selekziara

Espainiako 21 urtez azpiko selekzioak Alex Llamas konbokatuko du abenduaren 16tik 19ra Braganzan egingo duen kontzentrazioerako.

### Naiara Diez, kapitaina

Naiara Diez da Lointek Gernika Bizkaia taldeko jokalaririk kuttunetako bat.

CBASK Altsasu saskibaloitza taldean trebatu zen altsasuarrak. Ondoren, Ardoi taldetik pasa zen eta Zaragozan aritzeko aukera sortu zitzaion. Ondoren Iruñera bueltatu zen. Atsasuarra 7 denboralditan aritu zen Emakumezkoen Ligako lehen mailan, azkeneko lau denboralditan UNB Obenasarekin. Baina krisiaren eraginez Nafarroako taldea desagertu eta gero, 2013-2014 denboraldirako Emakumezkoen Ligako 2. mailako Gernika taldean aurkitu zuen tokia altsasuarrak eta 2015/2016 denboraldian Gernika mailaz igo eta gero, ordutik lehen mailan dabil, Emakumezkoen Ligan. Eskolta postuan jokatzeko du Diezek (Al-



Taldea bizkaitarreko jokalaririk, Naiara Diez barne, lorpena ospatzen. GERNIKA BIZKAIA

tsasu, 1987-01-29, 1,81 m). Taldeko jokalaririk kuttunenetakoa, Gernikako kapitain lanetan jarraitzen du altsasuarrak.

Emakumezkoen Ligako aurtengo denboraldian, 9 jardunaldi jokatu, Perfumerias Aveni-

da da liderra (18 +9 puntu). Lointek Gernika Bizkaia hirugarrena da (17-1 puntu). Larunbatean, 18:30ean, 10. jardunaldia jokatu du Lointek Gernika Bizkaia etxean, Embutidos Pajariel taldearen kontra.

## Sakanako Nesken Pala Txapelketa Altsasun

**PALA** Larunbatean gazteen partidak jokatu dira eta igandean lehen mailakoak, 11:00etan

Abenduaren lehenean hasi zen XIV. Gure Pilota Sakanako Nesken Pala Txapelketa. Guztira 33 bikote ari dira lehian, bi maila nagusitan banatuta: helduak (1. maila eta 2. maila) eta gaztetxoak, ondoko mailetan: txitoak, katagorriyek, usoak, pottokak eta tximeletak. Sakanako Mankomunitateak antolatzen du txapelketa, Etxarri Aranazko Gure Pilota klubaren, Nafarroako Gobernuaren eta ibarreko hainbat Udalen laguntzarekin.

Gaztetxoaren mailako partidak astean zehar jokatu dira nagusiki, haiei ongi dagokien tarreetan, eta helduek asteburutan jokatu dituzte partidak. Orain arte Irurtzunen eta Olaztin jokatu dute eta asteburu honetan Altsasuko Burunda pilotalekuan jokatu dira partidak.

### Burunda pilotalekuan

Larunbat goizean haurren eta gazteen mailako partidak jokatu dira Altsasun eta igandean lehen mailakoak, goizeko 11:00etatik aurrera. Yanira Aristorena etxarriarra Maite Ruiz de Larramendirekin ariko da, Muriñoren eta Erasunen kontra, eta Igoak eta Mendizabalek Larrarte eta Arrieta izango dituzte aurkari.



Kirol Merituari dominak eta aipamen bereziak jaso zituztenak, Uxue Barkosekin eta Ruben Goñirekin. NAF. GOBERNUA

## Eseverri eta Alzuetari gobernuaren aitortza

**KIROLDEGIA** Xotako Javi Eseverri jokalaria ohiak Kirol Merituari Urrezko domina jaso zuen eta Iratxoko mendi saileko presidente izandako Peio Alzuetari aipamen berezia egin zieten. Nafar batendako "maila goreneko saria" dela aitortu zuen Eseverrik

Azaroaren 30ean Nafarroako Gobernuak Kirol Merituari Urrezko eta Zilarrezko dominak banatu zituen Nafarroako Jaurregian egindako ekitaldian. Uxue Barkos presidentea eta Ruben Goñi Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko burua han zirela, urrezko bi domina eta zilarrezko 11 domina banatu zituen Nafarroako Gobernuak, eta horretaz gain hiru ohorezko aipamen egin zituen.

### Eseverri, hunkituta

Irurtzungo Xota areto futbol taldeko kapitain eta jokalaria ohi Javier Eseverrik Kirol Merituari Urrezko domina jaso zuen. Eseverrik 20 urte eman ditu

areto futboleko maila gorenean, eta guztiak Xota klub irurtzundarrean. Barkosek Eseverriren "lidergoa, karisma eta kantxan eta kantxatik kanpo duen jarraera eta portaera eredugarria" nabarmendu zuen. "Erreferente eztabaiaezina da eta bere klubarekiko leialtasuna ere gorai-patzeko modukoa da" gaineratu zuen.

Eseverrik oso kontentu eta hunkituta jaso zuen urrezko domina. "Oso kontentu nago, nafar batendako domina hau maila goreneko saria da. Nire ibilbideari amaiera bikaina ematen dio, eta jaso ditudan omenaldi ekitaldi amaigabeak borobiltzen ditu" adierazi zuen,

hunkituta, horrenbeste urtetan Xotako kapitaina izan den Otsagiko jokalaria.

### Peio Alzuetari aipamen berezia

Kirol Merituari dominak banatzeaz gain, Nafarroako Gobernuak hiru ohorezko aipamen egin zituen. Horietako bat Peio Alzuetari Labianorendako izan zen. Irurtzundarrak txirrindularitza lan handia egin zuen garai bateko Reynolds taldean eta, bestalde, Irurtzungo Iratxo klubeko mendi ataleko presidentea zen, Sakanako Ibilaldien antolatzaileetako bat. Aurten zendu zen, gaixotasun larri baten ondorioz. Haren senitartekoez hunkituta jaso zuten aipamena.

## Azkargorta azkarrena El Calenton kronoigoeran

**MENDIA** Erripagaña Urban Trail mendi lasterketan aritu ziren sakandarrak txukun aritu ziren

Abenduaren 6an Erripagaña Urban Trail mendi lasterketa jokatu zen Burlatako ur biltegian. Lehenik eta behin, beroketa moduan, 400 metroko El Calenton kronoigoera egin zuten ondoren lasterketan aritu zirenetako batzuk, Burlatako zubi zaharretik gora zegoen eremu batera. Azkarrenak Irati Ahetxu (2:15) eta Fermin Azkargorta sakandarra (1:55) izan ziren. Isidro Asurabarrena 28.a (2:24) eta Francisco Javier Moreno 30.a (2:25) sailkatu ziren.

Ondoren bi distantzien artean aukeratu zuten korrikalariek. Proba laburrean (6 km) Edurne Vicente (35:43) eta Fran Castillo (25:55) gailendu ziren eta proba luzean (12 km) Eva Gonzalez (1:09:05) eta Xabier Zarranz (51:38). Aitor Hernaiz lakuntzerra 16.a sartu zen helmugara (59:48) eta Javi Gasanz altsasurra 26.a (1:01:51). Taldeka Beste Iruñak irabazi zuen. Proba oso gorabeheratsua da Erripagaina Traila eta guztira 230 korrikalarik hartu zuten parte.

Denboraldiko azken mendi lasterketa da Erripagaña Urban Trail, mendi lasterketa baino, kross gogorra akaso. Orain, San Silvestretan dute burua gure korrikalariek.

## Nepalen oxigenoa

**MENDIA** "Nepal-Euskal Herria Oxigenoa Euskarari 6.000 metroan ere" izeneko proiektua gauzatu dute 12 gazte euskaldunek, Eneko Arretxe arbizuarrak tartean. Hilabete eman dute Nepalen, bertako gazteekin, eta trekinean aritu dira, 6.000 metroko bi mendi igo dituzte, eta, guztia, euskaraz eta sherperaz, bakoitzak bere herriko hizkuntza sustatuz.



OXIGENOA EUSKARARI 6.000 METROAN ERE



Korrika egiteko primerako eguraldia izan zuten Zubeztia elkarteko lasterketan parte hartu zuten korrikalariak.

# Vazquez eta Gil txapeldunak

**ATLETISMOA** Guztira 35 sakandarrek lortu zuten Zubeztia elkarteko Altsasuko proba despeditzea, Sergio Garcia de Eulate eta Izaskun Beunza buru zirela. Alberto Barricarte Memorialak Sakanako Atletismo Kopa erabaki zuen

Larunbatean, Ama Birjinaren egunean, 38. Oinezko lasterketa edo 35. Alberto Barricarte Memoriala jokatu zen Altsasun, Zubeztia elkarteak antolatuta. Korrika egiteko sekulako eguraldia zegoen, freskoa baina eguzkitsua, eta 155 korrikalari ekin zioten probari. Beste edizio batzuetan 300 korrikalari inguru aritu izan dira, baina "zubia nabaritu zela" nabarmendu zuten antolatzaileek. Zelai kalean egiten ari diren lanak direla eta, ibilbidea moldatu behar izan zuten eta azkenean 9,2 km inuruko proba izan zen Altsasuko.

Lasterketa oso azkarra izan zen. Hasieran Roberto Tanco iruindarrak hartu zuen aurrea. Baina Altsasuko proban 8 urtez jarraian aritu eta hainbat alditan bigarrena eta hirugarrena sailkatu eta gero, Lazkaoko An-

gel Vazquezek arantza atera zuen eta 38 urteko gipuzkoarra izan zen txapelduna, Roberto Tancori 5 segundo atera eta gero. Imarkoaingo David Palomok osatu zuen podiuma (31:22) eta Sergio Garcia de Eulate altsasuarra izan zen lehen sakandarra, 5. postuan sartu eta gero (32:06). "Lehendabiziko bueltan Tanco harrapatzea lortu dut eta hortik aurrera jo dut. Lasterketa honek ez du apenas desnibelik baina bihurgune asko ditu, eta abiadura galtzen duzu. Beraz, erritmo aldaketa handiak dira eta azkenean gogorra egin zait.

**AITANA GILEK ETA  
IZASKUN BEUNZAK  
LEHIA POLITA IZAN  
ZUTEN BESTE BEHIN,  
ETA GIL GAIENDU ZEN**

Baina oso gustukoa dudan proba da hau, bereziki giroagatik eta oso herrikoia delako. Izena ematea dohainik da, gaur egun ohikoa ez dena" aipatu zuen Vazquezek.

## Gil-Beunza lehia

Emakumezkoetan, aldiz, lehia estua izan zuten, beste behin, Cabanillasko Aitana Gilek eta Olaztiko Izaskun Beunzak. Sakanako Herri Lasterketako aurreko bi edizioetan bezala, multzo berean aritu ziren bi korrikalariak eta azkenean Altsasuko lasterketan estreinatzen zen Aitana Gil izan zen azkarrena (36:10), Izaskun Beunzari 5 segundo aterata (36:10). Zaragozako Pilar Arnal izan zen hirugarrena (39:36). "Izaskunek eraman nau, ia uneoro atzean egon naiz, baina azken 800 metroan abiadura handitu dut eta ihes egitea

lortu dut. Oso lasterketa polita da, giro ona dago" aipatu zuen Gilek.

Guztira 35 korrikalari sakandarrek lortu zuten proba despeditzea, Sergio Garcia de Eulate eta Izaskun Beunza buru zirela. Zubeztia elkarteko lehen sailkatua Iban Sobredo izan zen.

San Silvestreak prestatzeko lasterketa bikaina da Barricarte Memoriala. Proba oso herrikoia eta kuttuna da bertako korrikalariendako eta baita gipuzkoar eta arabarrendako. Bukaeran auzate ederra eskaini zuten Zubeztia elkarteak korrikalariari eta sari ematea izan zen. Ez da sari metalikorik banatzen, opariak eta trofeoak baizik, baina giroa primerakoa izan zen, beste behin.

## Sakanako Atletismo Kopa San Martin eta Gomez txapeldun

Barricarte Memorialak Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria erabaki zuen. Altsasukoarekin batera, Ziordiko Krosak (maiatzak 19), Bakaiku-Iturmendiko XV. Aitzkozar Herri Krosak (maiatzak 26), Ergoienako XV. Birak (irailak 22) eta Olaztin jokaturako XVIII. Sakanako Herri Lasterketak (azaroak 3) erabaki zuten Kopa.

Sakanako 10 korrikalari hobereenek puntuatzen zuten, emakumezkoek eta gizonezkoek, eta bost proba hauetatik gutxienez lauretan parte hartu behar zuten. Emakumezkoetan Erkuden San Martin Gonzalez etxarriarrak lortu ditu puntu gehien eta bera da Kopako txapelduna, Izaskun Beunza Azazeta ziordiarraren eta Maite Zabaleta Gomez etxarriarraren aurretik. Gizonezkoetan, aldiz, Juan Carlos Gomez Fernandez altsasuarra dugu Kopako txapelduna, Sergio Garcia de Eulate Maya altsasuarren eta Jose Javier Maiza Begiristain etxarriarraren aurretik. Sari ematea ilbeltzaren bukaeran izanen da. Tartean, bost probetan parte hartu duten korrikalarien artean sari bat zozketatu da, Santi Agirre Galarza iturmendiarrak jasoko duena.

**ERKUDEN SAN  
MARTINEK ETA JUAN  
CARLOS GOMEZEK  
IRABAZI DUTE  
SAKANAKO KOPA**

## Sakandarrak Barricarte Memorialean

### Gizonak

1. Angel Vazquez (Lazkao)	31:06
5. Sergio G. Eulate (Alts)	32:06
7. Alberto Martinez (Lak)	32:28
10. Raul Audikana (Olaz)	33:04
11. Joxeja Maiza (Etx)	33:06
12. Iban Sobredo (Alts)	33:08
16. Juan Carlos Gomez (Alts)	33:36
18. Jabi Gasanz (Alts)	33:45
19. Javier Borrega (Alts)	33:45
22. Fco. Javier Gomez (Alts)	33:56
28. Iñaki Alvaro (Alts)	34:51
32. Felix Benjumea (Alts)	35:03
42. Egoitz Aldaz (Olaz)	36:04
43. Aritz Etxeberria (Alts)	36:10
45. Luis Areta (Lak)	36:10
48. Gaizka Diaz de Garaio (Bak)	36:20
49. Asier Estarriaga (Etx)	36:26
51. Alberto Mazkarian (Alts)	36:51
57. Jon Ander Fernandez (Alts)	38:03
67. Joseba Galartza (Iturm)	38:30
68. Asier Lizarraga (Arb)	38:30
70. Martin Somocurcio (Alts)	38:00
71. Santi Agirre (Iturm)	38:47
75. Gorka Chamorro (Alts)	39:44
89. Ruben Garcia (Alts)	41:59
92. Aingeru Azazeta (Alts)	42:10
95. Josean Salgado (Alts)	42:25
96. Alberto Agirre (Alts)	42:25
99. Asier Palacios (Alts)	42:54
100. Aingeru Etxeberria (Alts)	42:54
101. Ruben Cantero (Alts)	43:29
102. Jesus Bengoetxea (Alts)	43:29
106. Jesus Sayas (Alts)	44:16
<b>Emakumeak</b>	
46. Aitana Gil (Cabanillas)	36:10
47. Izaskun Beunza (Olaz)	36:15
83. Erkuden San Martin (Etx)	40:32
1. Vanesa Galbete (Olaz)	45:32



## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 14

**ALTSASU Gazte agenda. Casino Royal.**

18:00etan, Intxostiapuntan.

**ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Kontzentrazioa.**

19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

**ALTSASU Balorazio saioa.**

19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

**IHABAR Sakanako kirolari onenen sari banaketa.**

19:30etan, herriko etxean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.**

20:00etan, plazan.

**ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.**

20:00etan, udaletxe parean.

**IRURTZUN Beheko larraine konpainiaren Manifestu bat antzezlanaren estreinaldia.**

20:30etan, kultur etxean.

**ALTSASU AHT geldituren pintxo-potea.**

20:30etik, Gaztetxean.

**ALTSASU Superlopez filmaren emanaldia.**

22:00etan, lortia kultur gunean.

**OLAZTI Mikel Bermejo El Hormiguero** telebista saioko gidoilariaren bakarriketa.

23:00etan, Barandi tabernan.

## LARUNBATA 15

**ALTSASU Sakanako gazte asanbladen arteko jardunaldiak. Hitzaldia: Gazte Asanbladaren funtzioa borroka.**

11:00etan, gaztetxean.

**BAKAIKU Hitz egin dezagun Bakaikuri buruz azken topaketa.**

11:00etan, udaletxean.

**ALTSASU Gazte agenda. Casino Royal.**

18:00etan, Intxostiapuntan.

**ALTSASU Gabon-kanta jaialdia. Botes y raíces** extremadurako folklore taldea eta **Anhelos del Rocio** koro rocieroak. La Encina.

18:30etan, lortia kultur gunean.

**OLAZTI Escape room kultur etxean: "L4 R3AL1D4D SUP3R4 L4 F1CC10N".**

19:00etan, kultur etxean.

**IRURTZUN Euskal ekitaldiak. Bertso afaria** Alaia Martin eta Aimar Karrika bertsolariekin. **Aizpea** euskaltzaleen topagunea.

21:30etan, Iratxo elkartearen.

## IGANDEA 16

**ALTSASU Aurrizteko gainera 32 kmko ibilbidea** egingen dute **Barrankako mendi atalekoek.**

07:30etan, taldearen egoitzatik.

**OLAZTI Zinema euskaraz: Harpetarra** filmaren emanaldia.

16:30etan, kultur etxean.

**IRURTZUN Euskal ekitaldiak. Txontxongilo** emanaldia:

**Katillukadak.** Aizpea euskaltzaleen topaguneak.

17:30etan, kultur etxean.

**ALTSASU Gazte agenda. Casino Royal.**

18:00etan, Intxostiapuntan.

**ETXARRI ARANATZ Caminamos para crecer** antzerki konpainiaren **Alas rotas** antzezlanak. **Sakana** Harrera Harana elkarteak antolatuta.

19:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Superlopez** filma.

19:30etan, lortia kultur gunean.

**LAKUNTZA Iñaki Auzmendiren diska berriaren aurkezpena.**

20:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.**

20:00etan, Foru plazan.

**ALTSASU Erkudengo Ama Abesbatzaren Eguberrietako kontzertua.**

20:30etan, elizan.

## ASTELEHENA 17

**OLAZTI Haurrendako ipuinkontalaria. Gabonetako ipuinak: Gutxiago gehiago da.**

17:00etan, liburutegian.




**IRURTZUN Iñaki Beorlegui** margolari euskal-mexikarraren migrazioaren eta Mediterraneoaren inguruko marrazkien erakusketa. **Urtarrilaren 13ra arte, Pikuxar euskal txokoan.**

**ETXARRI ARANATZ Sakanako** boluntarioen esperientzia Grezian argazki erakusketa **Sakana** Harrera Haranak antolatuta. **Abenduaren 15ean. 18:00etatik aurrera, kultur etxean.**



**ALTSASU Navarrorum** euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea. **Abenduaren 23ra. Astelehenetik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortian.**



**OLAZTI Jaiotzen** erakusketa. **Abenduaren 8tik urtarrilaren 7ra. Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara, larunbatetan 17:30etik 20:00etara eta igandetan eta jaiegunetan 13:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.**

**ALTSASU Jose Carreño Saez Mauthausen** egondako deportatuaren argazkien eta postalen erakusketa. **Abenduaren 20tik 23ra, lortian.**

**IRURTZUN Musika** gabonetan. **Musika** eskolaren kontzertua. **18:30etan, kultur etxean.**

**ALTSASU Pentsio** duinen alde. **Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak** deitutako elkarretaratzea. **19:00etan, udaletxearen parean.**

## ASTEARTEA 18

**IRURTZUN Ventura Ruiz** ipuin kontalaria: **Sagutxoak non-nahi.** **Aizpea.**

18:00etan, liburutegian.

**ETXARRI ARANATZ Herritarren** partehartze jardunaldia. **Sakana bizi eta lan Plan** estrategikoa eguneratzen. **18:00etan, kultur etxean.**

**ITURMENDI Kafe** konpondu. **18:00etatik 20:00etara, udaletxeko auzogelan.**

## ASTEAZKENA 19

**IRURTZUN Kafe** konpondu. **18:00etatik 20:00etara, udaletxeko bazar gelan.**

**ALTSASU Herritarren** partehartze jardunaldia. **Sakana bizi eta lan Plan** estrategikoa eguneratzen. **18:00etan, lortia kultur gunean.**

**ALTSASU AHTa zergatik nahi** **dugu gelditu** hitzaldia. **19:00etan, lortia kultur gunean.**

## OSTEGUNA 20

**OLAZTI Musika** eskolako **Gabonetako** kontzertua. **18:00etan, kultur etxean.**

**ALTSASU El fotografo de Mauthausen** filma. **19:30etan, lortia kultur gunean.**

**LAKUNTZA Kafe** konpondu. **18:00etatik 20:00etara, kultur etxean.**

## ZORION AGURRAK



**Iraia**  
Zorionak zure lehenengo urtebetzean!! Muxu haundi bat familia guztiaren partez!!



**Oihan**  
Zorionak Oihan familia guztiaren partetik!! Askok maite zaitugu!!



**Ainire**  
Zorionak Ainire! 8 urte jada, nola pasatzen den denbora. Egun oso polita pasa. Muxuak Arbizuko familiaren partez.



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen ibitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com · www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU · Tel./Faxo: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



## ESKELA



## Jose Andres Gabirondo Goikoetxea-Ziordia



"Musika entzutean  
gozaten zenuen benetan  
Guk zu horrela ikusita  
jartzen ginen pozetan  
Utzi gaituzu jada

piztu zara izarretan  
Betiko izango zara  
gure bihotzetan"

Maite zaitugu

### Zure familia

Altsasun, 2018ko abenduaren 9an

## ESKELA

## Iñaki Velez

Eskerrik asko behar izan zaitugunean gure  
ondoan izan zaitugulako.

Bidai on lagun!



Arbizuko kanpina

## OROIGARRIA



## Eusebio Lazkoz Razkin

VII. Urteurrena

Gure ondotik joan zinen,  
baina ez gure bihotzetik.  
Beti jarraituko duzu gurekin.  
Maite zaitugu.

Emaztea, seme-alabak eta bilobak

## OROIGARRIA



## Jose M<sup>a</sup> Artola

Aitona



Soilik ahazten dena hilda dago

Etxeokak

## IRAGARKI SAILKATUAK

### IBILGAILUA

#### SALGAI

**Iturmendin**  
**Autokarabana salgai:**  
KNAUS TRAVELLER  
700MG Kaputxina. Intere-  
satuak deitu 678 067 155  
tfnora.

### LEHIAKETAK

**GAZTEWOOD.** Altsasuko  
gazte txeraren III. Film la-  
burren txapelketa. Gehie-  
nez 15 minutu. Lanak MP4  
formatuan, DVDan edo  
pendrivean aurkeztu  
behar dira 2019ko mar-  
txoaren 19a baino lehen.  
Informazio gehiagorako  
gazteewood@gmail.com  
edo sare sozialetan gaz-  
teewood profilean.

### OHARRAK

**Etzarriko irakurle  
taldea.** Ilbeltzaren 4an,  
ostiralean, 19:00etan

Etzarri Aranazko liburute-  
gian elkartu eta Arantxa  
Urretabizkaiaren "Bidean  
ikasita" liburuaz hizketa-  
tuko dira.

**Sakana Trenaren alde.**  
Taldea astelehenero,  
19:00etan, elkartzen da.  
Behin behineko bitokia  
LABek Altsasun duen  
egoitzan da, han egiten  
dira bilera.

**Nafarroako Elikagaien  
Bankuaren alde.** Diru  
ekarpenak kontu korronte  
hauetan egin daitezke:  
Laboral kutxa 3035 0069  
52 0690024878, Rural  
kutxa 3008 0001 16  
0700279128 eta Caixa  
2100217387 0200346965

**GoiEner.** Iruñeko helbide  
berria: Kale Berria 111,  
31001 Iruñea, tel 948 504  
135. Hileroko 1. eta 3. as-  
teazkenetan, 17:00-19:00.

**Autoenplegurako  
laguntza.** Zure lanpostua

sortu nahi baduzu Cederna-  
Garalurrek honako laguntza  
eskaintzen du: ideia azter-  
tzea, proiektua garatzea,  
enpresa sortzea edota  
marxan dagoen jarduera  
sendotzea. Argibide gehia-  
go: 948 56 70 10, sakana@  
cederna.es edo sakana.  
admon@cederna.es

**3MBk kontu korrontea**  
zabaldu du Rural kutxan  
eta jendeak han egin di-  
tzake ekarpenak 3008  
0093 66 2460985811.


### OPATUTAKOAK/ GALDUTAKOAK

**ERLOJUA ALTSASUN.** Esfe-  
raren atzeko aldean MR  
hizkiak eta 22-6-53 eta 22-  
6-78 datak ditu idatziak.  
Longines markakoa. Galdu  
duenak Guaixe atekarira  
hots egin dezala, 948 564  
275


www.iragarkilaburrak.eus

## EGURALDIA ASTEBURUAN


### Ostirala, 14




### Larunbata, 15



### Igandea, 16



### Astelehena, 17



## OROIGARRIA



## Eusebio Lazkoz Razkin

VII. Urteurrena

Gure ondotik joan zinen,  
baina ez gure bihotzetik.  
Beti jarraituko duzu gurekin.  
Maite zaitugu.

Emaztea, seme-alabak eta bilobak

## JAIOTZAK

- **Eki Mariezkurrena Lopez de Goikoetxea**, azaroaren 14an Ziordian
- **Israel Baptista Frade**, azaroaren 30ean Altsasun
- **Razan Bouaziz El Baz**, abenduaren 8an Irurtzunen

## HERIOTZAK

- **Josefina Mendia Arbizu**, azaroaren 18an Ziordian
- **Perfecto Galarza Lopez de Goikoetxea**, azaroaren 30ean Urdiainen
- **Jose Luis Berasategi Arrondo**, abenduaren 5ean Urdiainen
- **Migel Flores Razkin**, abenduaren 5ean Arbizun
- **Manuela Berastegi Jaka**, abenduaren 8an Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU  
NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



# IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI-ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

# IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## “Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🖱 www.tanatoriosirache.es



Manifestu bat antzezlanaren irudia. BEHEKO LARRAINE

## Irurtzunen sortutako heriotzaren inguruko lanaren estreinaldia

'Manifestu bat' antzezlanaren irudia. BEHEKO LARRAINE

'Manifestu bat' antzezlanaren irudia. BEHEKO LARRAINE

14, ostirala Irurtzango kultur etxean, 20:30ean

### IRURTZUN

Miren Tirapu *Manifestu bat* lanaren zuzendaria eta aktorea da eta Beheko Larraine antzerki konpainiaren kide. Taldeak *Manifestu bat* lanaren sorkuntza prozesua Irurtzunen egin du. "Horrelako antzoki bat aurkitzea oso zaila da. Izugarria da, oso goxoa eta gertukoa". Hortaz, proiektua sortu den lekuan bukatzea eta estreinatzea gustatzen zaie. Gaur izanen da estreinaldia, 20:30ean.

"Gure kulturaren heriotza trauma edo tabu bat da". Tirapuk interpretatzen duen pertsonaia

heriotzarekin "obsesionatuta" dago. "Eta ez dakit pertsonaia den edo ni naizen, baina heriotzari buruz ikertzen hasi nintzen". Pertsonaia gaur eta orain hila behar dela uste du. Hortaz, ikusleak hileta batera gonbidatutako pertsonak bihurtzen dira. "Harreman polita sortzen da ikus-entzuleekin. Baina ez dute parte hartuko".

Irurtzango estreinatuko duten *Manifestu bat* lanaren pertsonaia bere hileta prestatuko du: "bazterreko" pertsona bat izan da, eta agur polit bat izan nahi du; protagonista izan.

## Hemengo eta hango gabonkantzak Eguberrien atarian

Erkudengo Ama abesbatzak Eguberriko kontzertua egingen du bihar, abenduaren 15ean, 20:30ean, elizan

### ALTSASU

Erkudengo Ama abesbatzak bihar egingen du ohikoa duen Eguberrietako kontzertua. Altsasuko elizan izanen da emanaldia 20:30ean, eta ez da bakarrik egonen. Erkuden Eceolaza mezzosopranoak eta Itziar Maiz eta Ainhoa Bermendi piano joleek parte hartuko dute ere. Altsasuko Musika eta Dantza eskolako eta Corazonistas ikastetxeko abesbatzek ere kantatuko dute.

Erkudengo Ama abesbatzak igandeko kontzertuan eskainiko dute errepertorioan gabonkan-

tak izanen dira nagusi. Haietako batzuk, gainera, lehenengo aldiz egingen dituztela esan du Puri Altzelai abesbatzako kideak. Adibidez, Lorenzo Ondarraren *Manifiesto de Navidad* edo herriko kanta den eta Jesus Urrestarazuk armonizatu duen *Gure Jesus adoratzea*.

Erkuden Eceolaza mezzosopranoak bakarlarri lana egingen du hainbat abestietan. Hala ere, gabonkantzak ez diren abestiak eskainiko dituzte ere *Lescia ch'io piaga* edo *Laudate Dominum* abestiak, esaterako.

## Errealitatea izan zitekeen antzezlan, Etxarrin

'Alas Rotas' antzezlanaren irudia. BEHEKO LARRAINE

'Alas Rotas' antzezlanaren irudia. BEHEKO LARRAINE

eginen du Caminamos para crecer taldeak igandean, 19:00etan

### ETXARRI ARANATZ

Jendarte inklusiboa eta solidarioa sortzeko lehenengo urratsa pertsonalki haztea dela uste dute Caminamos para crecer kulturarteko antzerki taldeko kideek. CEAR-Euskadi Euskadiko Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordean sortu zen antzerki konpainia 2015ean, batzordearen zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona errefuxiatuekin eta boluntarioekin. *Alas Rotas* antzezlanaren aurkeztu berri dute, eta igandean, abenduaren 16an, antzeztuko dute kultur etxean, 19:00etan.

Antzerkiak estereotiporik gabe garatzeko aukera ematen diela azaldu dute Caminamos para crecer antzerki taldeko kideek. Hortaz, askatasun tokia eta tresna da antzerkia. Mali, Costa de Marfil, Maroko, Peru, Mexiko eta Euskal Herriko lagunek parte hartzen dute kulturarteko antzerki talde honetan.

*Alas Rotas* antzezlanak ez du errealitateko istorioa kontatzen, baina izan zitekeen. Fore da egilea eta zuzendaria eta Yankoren istorioa kontatzen du. Yanko errefuxiatua da eta Espainian asiloa eskatu du. Asiloa lortzea ez da bide erraza, eta, azkenean, deportatzen dute. Gizaritatearen injustiziak aipatuko dira antzezlanaren ere, bereziki, xenofobia eta sexismoa. Hala ere, *Alas Rotas* aurrera egiteko indarraren aldeko mezua plazaratzen du. Hortaz, laguntasuna eta itxaropenaren indarraren boterearen mezua gailentzen da.

Antzezlanaren 19:00etan izanen da eta, aurretik, 18:00etatik aurrera Sakanako boluntarioen esperientzia Grezian argazki erakusketa izanen da Etxarri Aranazko kultur etxean. Sakana Harrera Haranak eta CEAR-ek antolatuta dituzte ekintzak, Etxarriko udalaren eta Nafarroako gobernuaren laguntzarekin. Bi ekimenak doan dira.



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO

## Adimen artifizialaren morala?

Ez gara konturatzen, baina geroz eta adimen artifizial gehiago dugu gure inguruan.

Adimen artifizialaz ari garenean, ez dugu bakarrik robotengan pentsatu behar. Aplikazio desberdin asko dute eremu honek. Esate baterako, duela egun batzuk aurkeztu zuten Modela itzultzaile automatikoak, adimen artifizialaren bitartez ikasiko du itzulpen geroz eta egokiagoak egiten. Kasu horretan, adimen artifizialaren lana nahiko objektiboa da, hizkuntzaren mugen artean behintzat.

Baina zer gertatzen da adimen artifizialak hartu behar dituen erabakietan morala sartzen denean? Adibidez, kotxe autonomo bat Sakanako kaleetatik dabilenean, dilema moralak izan ditzake, ez behar bat gertatuz gero gaitz txikiena zein den aukeratu beharko du, aita bat bere haurrekin harrapatu edo ondoko kotxean doan bikotea eta amona. Edo enpresa batean langilearen aukeraketa egitea adimen artifizialaren esku uzten badugu eta emandako irizpideetan bakarrik tradizionalak gizonetakoari eman zaizkion

ezaugarrietan jartzen badugu garrantzia, azkenean bakarrik gizonetakoari aukeratuko dituzte, beste ezaugarri garrantzitsu eman gabe.

Burtsan ere, geroz eta garrantzia handiagoa du adimen artifizialak, geroz eta automatizatuagoa da diruaren jarioa. Adimen artifizialaren helburu bakarra dirua irabaztea denez, ez dute inongo gupidarik edukiko pertsona edo herrialde oso bat hondoratzeko, eta horrek eragin zuzena izan lezake pertsona askoren ongizatean.

Adimen artifizialaren eragina gure bizitzaren eremu askotara iristen da gaur egun, eta nabariagoa izango da hemendik aurrera. Lana bilatzerako edo kreditu bat eskatzerako garaian funtzio baten menpe egoteak, faktore pertsonala kontuan izan gabe, ondorio larriak ekar ditzake.

Azken finean, adimen artifizialak dagoenetik ikasten du, *status quo*-a mantentzen.

Gizartea aldatu nahi badugu eta bizitza erdigunean jarri, teknologiak aldaketak horretan sartu behar ditugu. Horregatik, robotak feminista izango da, edo ez da izango!

## Ikuskizun interaktiboa Olaztiko kultur etxean

*Escape room* ikuskizun interaktiboa egingen da bihar, abenduaren 15ean, 19:00etan Olaztiko kultur etxean. *Escape room* edo ihes-gela batean parte hartzen dutenek gela batean sartzen dira eta denbora tarte batean baino lehen, 60 minutu izan ohi dira, ihes egin behar dute enigmak ebazteko, frogak pasatuz eta galderek erantzunez, besteak beste.

2007an sortu ziren *Escape room*-ak Japonian eta ordutik oso ezagunak egin dira. Ikuskizuna prestatuta dagoen gela batean egin ohi da, baina kasu honetan ihes gela kultur etxe batean egitea proposatzen du *Escape room* Pamplona konpainiak.

## 'Letrak ahora' literatur lehiaketaren liburuxkak Arbizun

Arbizuko udalak *Letrak ahora* literatur lehiaketaren liburuxka argitaratu du. Argitalpen "xume" honetan bi saridunen lanak agertzen dira: Joxe Aldasoro etxarriarraren *Bernoneko azken afaria* narrazio laburra eta Eneko Barberena arrasatearraren *Aranondoaren azpian* poesia. Ilustrazioak Aitziber Alonsok egin ditu.

Liburuxka irabazleen artean, eta Sakanako ikastetxeetan eta liburutegietan banatuko dituzte. 100 ale argitaratu dituzte. Argitalpena sarietako bat zen, Monika Etxebarria Arbizuko kultur zinegotziak azaldu bezala. Idazleek haien lana eskuetan izatea "politak" dela adierazi du.



Navarrorum erakusketa lortian.

## 'Lingua Navarrorum'-aren azterna idatziaren historia

Navarrorum euskarazko dokumentuen erakusketa abenduaren 23ra arte izanen da Iortia kultur gunean

### ALTSASU

Navarrorum ez da euskararen historiaren inguruko erakusketa bat. Navarrorum erakusketak hainbat idazkien bidez Nafarroako euskararen azterna dokumentala agertzen du. Erromatar garaiko Largako hilerrian aurkitutako haurlazatik, argitaratutako lehenengo euskarazko Bibliatik pasa eta XIX. mendeko hausnarketara eta erronketara. Nafarroan euskararen ibilbidea ezagutzeko aukera ematen du erakusketak. Abenduaren 23ra arte izanen da Iortia kultur gunean. Gaur, 19:00etan, Peio Mon-

teano erakusketaren komisarioak Matxin gutunaren, XV. mendeko nobleen artean idatzitako testu bakarraren, inguruko hitzaldia emanen du Iortia hitzaldi aretoan.

Euskararen historiaren erakusketa ez den arren, euskarak Nafarroan izan duen garapena ezagutzeko aukera ematen dute erakusketan ikusgai dauden dokumentuek. Erakusketa interaktiboa da, izan ere, bost pantailen bidez historian aurkitutako dokumentuen historia ere azaltzen da. Hainbat faksimile ikusteko aukera dago ere.



DRONETIKAN AIRWORKS

## Sutan jarri dute bideo lehiaketa

Altsasuko Sutan dantza talde berriak Gaztea Irratiaren Gaztea Dantza lehiaketan parte hartu du. 70 lan aurkeztu dira eta 25 finalista aukeratu dituzte. Gustukoena [eitb.eus](http://eitb.eus) webgunean bozkatzeko aukera dago. Sutan taldea Altsasuko hiru dantzari gazteek osatzen dute. Irantzuz Gonzalez Azpiroz dantza eskolan trebatuak dira, eta orain eskolan irakasleak dira.

# "Era naturalean sortu da Baloreak proiektua"

Baloreak musika taldea sortu du Deep Soda arbizuko ekoiztetxeak. Bost hurrek osatzen dute taldea: Luna, Asier, Iradi, Netxanet eta Kaiet; eta giza balioak lantzen dituzte. Durangoko azokan aurkeztu zuten zortzi abestiko diskoa

### Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Deep Soda ekoiztetxea sortu dute Paskal Etxepare soinu teknikariak, Pello Reparaz musikariak eta ekoizleak, eta Joseba Razquin musika managerrak. Ekoiztetxearen filosofia "proiektu esanguratsua eta berritzaileak sortzea da", Razquinek azaldu bezala. Hortaz, Deep Sodak mar txan jarri duen lehenengo proiektu "propioa" Baloreak izan da. Casting digitalaren bidez hautatutako bost hurrek osatzen dute taldea, eta giza balioak lantzen dituen musika talde bat da. "Haurren ahotsetatik hurrendako".

Reparaz eta Razquin irakasleak dira eta "hurrekin lan egitea izugarri gustatzen" zaie. Beraz, ekoiztetxea sortzean musika eta hurrek uztartzea erabaki zuten.

"Uste genuen beharrezkoa zela haurren talde bat sortzea haiek direlako etorkizuneko musika kontsumitzaileak". Razquinen hitzetan musika proiektu asko egiten dira, baina "gure ekarpena" egin behar zutela uste zuten, eta haien proposamen "publiko honentzat" bideratutako proiektua egitea zen: "giza balioak landu kalitatezko musikaren bidez".

Pop-a, folk-a eta musika elektronikoa uztartzen ditu Baloreak



Baloreak taldeko kideak. JOSEBA RAZQUIN

taldeak. "Baloreak entzuten duzenean mestizaje hori ikusten da". Baloreak-en den soinua lortu dute.

Letrak Pello Reparazek sortu ditu, baina taldea osatzen duten haurren iritziak eta ideiak kontuan hartu dituzte. "Kontrastatu nahi genuen beraientzat zeintzuk ziren balio garrantzitsuenak". Gainera, hiru kolektibo aukeratu zituzten lantzeko: Chrysalis, SOS Arrazakeria eta Eraikiz kolektibo feminista. "Taldekideek munduko beste bost haur ezagutu zituzten eta

haiekin giza balioen inguruan hitz egin zuten"

Baloreak taldeko kideek bideo bat bidali zuten Deep Sodak martxoan zabaldu zuen casting digitalera. "Guretzat arrakastatsua izan zen". 300 bideo baino gehiago jaso zituzten, eta, gainera, "izugarria izan zen haurren gogoak eta bertuteak". Familiei esker hurrekin lan egitea erraza izan dela dio Razquinek. Proiektua "era naturalean sortu da, eta lasai eta maitasunarekin" egiten ari dira.

Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## 11 GALDERA



Imanol Irurtzun Artola, Ihabarko arbitroa, partida bat epaitzen. 3. mailako arbitroa da gaur egun. UTZITAKOIA

## "Epaileak kirolariak gara, gu gabe ez dago kirolik"

Gaur, bere jaioterrian, Ihabarren, Sakanako kirolari onenen aipamen berezia jasoko du Imanol Irurtzun Artola arbitroak. 3. mailan epaitzen du eta 2. B mailara igotzeko azterketak egingo ditu berriz. Arbitrajea uztea ez zaio burutik pasa ere egiten.

**Maidar Betelu Ganboa** IHABAR

### 1 Nola sortu zitzaizun arbitro izateko gogoa?

Bat-bateko kontua izan zen. 2012ko urrian hasi nintzen epaile. Aurretik futbolari aritzen nintzen, baina lesioa izan nuen, pubalgia. Iragarki bat ikusi nuen, epaileak behar zirela, eta futbolari lotuta jarraitzeko bertara jo nuen. Orduan 24 urte nituen, berandu hasi nintzen.

### 2 Formazioen bat jaso zenuen?

Bai, hasieran bizpahiru asteko formazioa jaso nuen. Gero azterketak egin, eta gaindituz gero has zaitezke epaitzen. Lehen urtea jubeniletan aritu nintzen, bigarrenean erregionalean, hirugarrenean preferente mailan eta laugarrenean 3. mailan.

### 3 2.B mailara igotzeko azterketa gogorrakoak egin behar izan zenituen Madrilan, ez?

Bai, 3. mailara arte Nafarroan egiten dira azterketak, baina 2. B mailara igotzeko azterketak Estatuko Futbol Federazioan egiten dira, Madrilan. 300 hautagaietatik gora ginen eta otsailan eta maiatzean egindako bi azterketak kontuan hartuta nota altuena lortu nuen eta 2. B mailara igotzea lortu nuen. Baina lehengo urtean jaitsi ninduten eta berriro 3. mailako entrenatzailea naiz.

### 4 Eta igotzen saiatuko zara?

Bai. 2. B mailara igotzeko 30 urte arte dago aukera, aurten azken urtea dut igoera lortzeko. Aurten azterketa erraztu dute, gehiegizkoa zelako. Azterketa bakarra izango da, maiatzean.

1. mailara igotzeko, 2.B-tik 2. mailara igo beharko nintzateke eta hortik lehenengora. Hor ez dago azterketarik. Informatzailerak partidetera doaz, nota jartzera, eta nota horiekin igo edo jaitsi egiten gara.

### 5 Oso zaila izan behar da arbitro izatea, duzuen presioarengatik.

Ez dut epailea izatearen alde txar hori askotan bizi. Baina egia da ez gaudela ongi ikusiak, ez dela gure lana baloratzen. Tentsio une horietan erabaki bat hartu behar izatea ez da batere erraza.

### 6 Batzuetan sekulako astakeriak entzuten dira zelaian... zein izan da entzun duzun irainik gogorrena?

Nik ere entzuten ditut, baina azkenean ez doaz gure kontra, epailearen figuraren kontra baizik. Orohar betiko irainak izaten dira, jendea ez da batere originala, baina duela lau urte "arbitro abedul!" entzun nuen. Eta beti gogoratzen dut. Noizbehinika lan ona egin dugula esatera etortzen zaigu jendea, eta hori eskertzen da.

### 7 Arbitro on bat izateko zein dohain dira beharrezkoak?

Norberaren izaerak garrantzia handia dauka. Pertsonalitate sendorik ez baduzu, zure buruarengan konfiantzarik ez baduzu... ez dut erraza ikusten norbaitek epaile bezala bide handia egin dezakeenik. Zure erabakiak

ziurtasun handiz hartu behar dituzu, sarritan ez dira oso gutxioak eta zu sendo mantendu behar zara.

### 8 Zure aisialdia arbitro izateari eskaintzeak merezi ditu?

Bai, liga ez dagoenean faltan botatzen da. Nafarroan epaile gutxi dago. Orain arte ez zait inor etorri mundu honetan sartu nahi duela esatera, baina zergatik ez? Kirola egin, diru pixka bat irabazi eta lagunak egiteko aukera bezala nik mundu guztia animatuko nuke. Egun ez zait burutik pasatzen arbitro izateari uztea.

### 9 Zein futbol taldekoa zara? Eta nor da zuretzat, arbitrorik onena?

Osasunakoa, eta ez dut arazorik hori esateko nafarra izanda ezingo nukeelako inoiz Osasuna epaitu. Eta Alberto Undiano epaile iruindarra oso gustuko dut. Oso lasaia da, ez du keinu txarrik, partidak ongi eraman izan ditu eta uste dut estatu mailan egon den arbitrorik onena izan dela.

### 10 Zer deritzozu epaitzeko VAR sistemaz? Beharrezkoa da?

Beharrezkoa zen sistema hau, eta futbolaren eta epaileen onurarako izan da. VAR-a erabiliko da akats nabarmen horiek ez gertatzeko.

### 11 Gaur Mankomunitateak aipamen berezia egingo dizu. Nola hartu zenuen berria?

Ez nuen espero, harriritu gera tu nintzen. Horrelako aipamenak jasotzea beti da pozgarria. Guk kirolari bezala ikusten dugu gure burua, epailerik gabe ez dagoelako kirolarik.

**BANDERAK  
BINILOAK  
ROLL UPAK  
PHOTOCALLAK**

**gk** KOMUNIKAZIOA  
 INFO@GKOMUNIKAZIOA.EUS  
 948 56 42 75